



Zurrumurruen | Red Vasca
Aurkako Sarea | antirumores

100 eta **hamaika galdera** **immigrazioaz**





BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

ISBN: 978-84-19064-33-2

Aurkibidea

Sarrera	5
Gaur egungo migrazioei buruzko zenbait datu eta kontzeptu Joaquín Arango	8
Migrazio-mosaikoa Espainian Carlota Solé	15
Demografia eta immigrazioa Mikolaj Stanek	21
Lan-merkatua eta immigrazioa Lorenzo Cachón	27
Emakumeak eta immigrazioa Sònia Parella Rubio	33
Etorkinen seme-alabak Espainian Silvia Carrasco	39
Integrazio-politika: osasuna, gizarte-zerbitzuak eta bestelako prestazioak Rubén Lasheras	45
Integrazioa eta kultura-aniztasuna Sandra Gil Araujo	51
Bizikidetzaren erronkak: diskriminazioa, arrazakeria eta xenofobia M.ª Ángeles Cea D'Ancona eta Miguel S. Valles Martínez	57
Nazioarteko mugikortasuna kudeatzeko politikak Gemma Pinyol-Jiménez	63
Bidalketak, itzulera eta garapena Joan Lacomba	69

Zergatik ulertu immigrazioa?

Immigrazioaren buru-hausgarria ulertzea lan nekeza da. Izan ere, migrazio-mugimenduak, pertsonen joan-etorri guztiak bezala, izan behartuak edo gutxi gorabehera borondatezkoak, gizarte-prozesu konplexuak dira, eta interes berdinak edo kontrajarriak dituzten hainbat eragilek parte hartzen dute prozesu horietan. Gainera, testuinguru desberdinetan mugitzen dira, eta, horrenbestez, migrazio-prozesu bakoitzak berariazko osagai bereziak ditu. Testuinguru horiek sortzen dira bai jatorrizko herrialdeetan (ekonomia-inguruabarrak, gizarte-krisiak edo pertsonen garapen librea zailtzen duten baldintza politikoak, batzuetan gosea, indarkeria eta jazarpen politikoa direla eta), bai helmugako herrialdeetan (biztanleria zahartzea, jarduera ekonomikoaren hainbat sektoretan langileak faltatzea, eta/edo sarrera-politika ez-egokiak egotea, adibidez, kudeaketa-sistema ez-eraginkorrak eta beste batzuk). Horri gehitu behar zaizkio igarotze-herrialdeetako egoera eta mugaz gaindiko joan-etorrietan migratzaileek izan behar dituzten zailtasunak, batez ere, bidean bizia arriskuan jartzen dutenenak. Horrek guztiak “migrazio-auziaren” askotariko ikuspegia eratzen du. Horregatik, zaila da immigrazioa ulertzea.

Hala ere, *immigrazioa ulertzea* garrantzitsua da. Oinarrizko hiru arrazoirengatik, gutxienez. Lehenik eta behin, gure gizarteetan dauden aurreiritziei, estereotipoei eta jarrera xenofoboiei aurre egiteko; jarrera horiek, neurri batean, ez ezagutzeak eta ez ulertzeak eragiten dituzte, eta, hein batean, immigrazioaren aurkako diskurtso politikoek eta migrazio-fluxuei eusteko estatu-praktikek, zeinak, gainera, ez baitira egokiak xede-gizarteen beharren ikuspuntu hertsitik. Bigarrenik, immigrazioa ulertzea garrantzitsua da, migrazio-politika eraginkorragoak eta bidezkoagoak egiten lagunduko duelako, migrazioa segurua, ordenatua eta erregularra izan dadin, Nazio Batuen 2018ko Mundu Itunak

eskatzen duen bezala. Eta, hirugarrenik, immigrazioa ulertzea garrantzitsua da, gizarte gisa geure burua definitzen laguntzen baitigu. Nola jardun immigrazioarekin, hori da ispilurik onena kolektiboki zer gizarte mota eraiki nahi dugun jakiteko. Migrazioa hobeki ulertzeak gizarte bidezkoago eta integratzaileago bat eraikitzen lagunduko digu, non pertsona guztiak baldintza berdinekin tratatuko baitira, giza eskubideak errespetatuta eta jatorriagatik, generoagatik edo sexu-orientazioagatik (edo bestelako diskriminazio-arrazoiengatik) bereizkeriarik gabe.

100 eta hamaika galdera immigrazioaz da liburu honen izenburua, informatutako pertsona batek migrazio-fenomenoari buruz maiz egiten dituen galderei erantzunak ematea baitu helburu. Horretarako, gizarte-prozesu horren hainbat alderdi ikertu dituzten hamaika-pertsona adituk hamar galdera erantzun dituzte. Eta sendotasun akademikoaz erantzuten dute, baina akademiatik kanpo dauden herritarrentzat ulergarria izan dadin. Horrela, akademikoen betebeharrak garrantzitsuenetariko bat betetzen dute, batzuetan ahaztuta dagoena: komunitateari bere ezagutzaren emaitzak itzultzea, eta gizarte libreagoak eta bidezkoagoak eraikitzeke tresna gisa egitea hori.

111 galdera dira; izan ere, hamaika zenbakiak oparotasuna edo ugaritasuna adierazten du. Hala, hamaika zenbakiari esleitutako esanahi hori iradokitzailea iruditu zaigu migrazio-fenomenoaren dimentsio anitzen metafora gisa, alegia, hura ulertzeko zailtasunaren eta hura eraginkortasunez kudeatzeko beharraren metafora gisa. ZAS! - Zurrumurruen Aurkako Sarea, duela hiru urte, testu batzuk egiten hasi zen, biztanleria migratzaileari eta haren joan-etorriei buruzko estereotipo ugariak erkatzeke edo horiei aurre egiteke behar adinako ezagutza herritarren eskura jartzeko. Aurreko batzuetan, adituen laguntza izan dugu, eta eskuzabaltasunez parte hartu dute zurrumurru nagusietara mugatutako gaietan. Oraingo honetan, aurrerapauso bat eman nahi genuen, eta migrazioaren alderdi garrantzitsuenei buruzko ezagutza integrala jasoko duen testu bat landu dugu.

Testu honekin, eta aurrekoekin batera, migrazioen inguruan nagusi den zentzu komunari aurre egin nahi dioten pertsona guztiek armategi erabilgarri bat izango dute ideia eta argudio askori aurre egiteko. Ideia eta argudio horiek, ikuspegi sozialetik neutralak edo logikoak diruditen arren, askotan gezurrak eta engainuak ezkututzen dituzte, gizartekoak desegiten dituztenak.

ZAS! sortu zenean, bizi genuen gizarte-testuinguruari dagokionez, nahikoa zen gogoetazko zigorgabetasun-eremuak eraikitzearen aurrean arreta erakartzea. Beharbada, fase hori gainditu egin dute fake newsen garaiak eta eremu publikoan inolako iragazki eta erantzukizunik gabe esku hartzeko aukerak, nahiz eta ondorio maltzurak dituzten benetako astakeriak esaten diren. Garai berri hori dela-eta, badirudi logika berean oinarritutako kontra-argudio bat prestatu beharko genukeela, baina ZAS! sarean uste dugunez, tresna hobea da diskurtso alternatiboa eraikitzea. Horretarako, lehenengo urratsa da, ezbairik gabe, migrazioaren buru-hausgarri handia ezagutzea eta pazientziaz eta segurtasunez muntatu ahal izatea.

Azkenik, ZAS! saretik eskerrak eman nahi dizkiegu egile guztiei, liburu honetan parte hartu dutelako. Eta, bereziki, Lorenzo Cachóni. Udaberriko eguerdi batean, txakolin artean, bidaldi txiki baina handi hau zuzentzen eta koordinatzen hasi ginen. Portu onera iristea espero dugu.

Gaur egungo migrazioei buruzko zenbait datu eta kontzeptu

Joaquín Arango

Soziologiako katedradun emeritua, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea

1. Nazioarteko zenbat migratzaile daude munduan?

Edozein herrialdetako etorkin kopurua kalkulatzeko ez da inola ere erraza, hainbat arrazoiengatik. Eta askoz zailagoa da hori planeta osorako egitea. Zorionez, erakunde bat horretan saiatzeko da urte gutxitan behin: Nazio Batuetako Ekonomia eta Gizarte Gaietako Saila (DAES). Nazio Batuen sisteman berriki sartutako beste agentzia batek, Migrazioen Nazioarteko Erakundeak (OIM), kalkulu horren emaitzak zabaltzen ditu. Argitaratutako azken zenbatespena 2020koa izan zen, eta, haren arabera, kopuru hori 281 milioikoa zen; hau da, munduko biztanle guztien %3,6. Askotan aipatzen da datu hori eta, hasiera batean, pozik egotekoa da, gaizki ezagutzen den errealitate batera hurbiltzea delako. Hala ere, zehaztu behar da zenbatespen hori estatistika nazionaletan oinarrituta dagoela, eta haiek ez direla beti zehatzak izaten; horregatik, DAESek emandako datua magnitude-ordenatza hartu behar da.

Badago hasierako lerratze bat, ulergarria inondik ere, ia estatistika-iturri nazional guztiek zenbatespenetik kanpo uzten baitituzte egoera administratibo irregularrean dauden etorkinak, erregistratuta ez egoteagatik, eta horrek baztertzekoa ez den azpiestimazio-maila bat ematen dio DAESen kalkulari. Espainia salbuespena da ildo horretan, estatistika demografikoak biztanleen udal-eroldan oinarrituta daudelako, eta bertan, legediari jarraikiz, inskribatuta eta, beraz, zenbatuta daude egoera irregularreko etorkinak, proportzio ezezagun baina, ziur aski, handi batean, erroldatzeak ekar ditzakeen onurengatik.

Nazio Batuen estimazioaren esanahia hobeto ulertzeko, komeni da argitzea nor jotzen duen DAESek nazioarteko etorkintzat: daukan nazionalitateari edo jaio den lekuari dagokion herrialdetik kanpoko beste batean urtebetetik gora bizitzen eman duen pertsona. Bizileku-baimena duten iheslariak horren barruan daude. Urtebetetik gorako aldiari buruzko klausula argitzeko, kontuan hartu behar da ezen, Nazio Batuen definizioekin bat, muga horrek aldi baterako migrazioak eta mugagabeak bereizten dituela, baina ez ohi da kontuan hartzen DAESen kalkuluaren ondorioetarako, beste arazo estatistiko bat izango litzatekeelako.

2. Zuzena da nazioarteko migrazioa asko handitzen ari delako uste zabaldua?

1970 eta 2020 arteko mende erdian, nazioarteko migratzaileen zenbatetsitako kopurua gaindika hirukoiztu da: 84 milioitik 281 milioira. Hortaz, dudarik gabe, eta balio absolutuetan, nazioarteko migrazioak gora egin du aldi horretan, eta hala jarraitzen du. Baina erantzuna negatibo samarra da, hazkunde horri balio erlatiboetan erreparatzen bazaio, eta kontuan hartzen bada zein den migratzaileen proportzioa munduko biztanle guztien artean. Izan ere, mende erdi horretan proportzioa %2,3tik %3,6ra aldatu da: igoera neurritzkoa, egonkortasun handia izan duena. Hori dela eta, munduko ehun biztanleko hiruzpalau baino ez dira bizi beraiena ez den herrialde batean; eta proportzio hori handiagoa litzateke, baina ez nabarmen handiagoa,

etorkin irregularrak gehituz gero. Gainera, komeni da gehitzea emendatze hori artifizio estatistiko baten ondorioa dela, munduko herrialdeen kopurua nabarmen handitu delako: 43 ziren 1900. urtean eta 193, berriz, 2000an. Lehenagoko herrialdeen zatiketagatik gertatu zen hori, eta berekin ekarri zuen milioika pertsona migratzaile bihurtzea bizi ziren lekutik mugitu gabe, beste herrialde bateko biztanle bilakatu baitziren. Hala, adibidez, Txekoslovakia 1990ean zatitu zenean, Txekiar Errepublikan bizi ziren eslovakiar asko nazioarteko migratzaile bihurtu ziren, bai eta Eslovakian bizi ziren txekiar asko ere, haietako inor bizilekuz aldatu gabe. Ez da harritzekoa Sobietar Batasuna garai bertsuan zatitu zenean gertatu izana nazioarteko migratzaileen kopuru-handitze artifizial handiena.

3. Zergatik ez da handiagoa munduan nazioarteko migratzaileen kopurua?

Desberdinkeria izugarri handiak eta iraukorrak dituen mundu honetan, inondik ere harrigarria da ehun pertsonatik hiruzpalau baino ez bizitzea beren herrialdetik kanpo. Begi-bistakoa da nazioarteko migratzaileen kopurua ez datorrela bat nazioarteko desparekotasun ekonomikoen neurriarekin. Errenta- eta ongizate-mailak –bai eta, egoki da esatea, bizi-aukeren maila ere– hamar, hogeitaz edo hogeitaz hamar aldiz handiagoak dira asko garatutako herrialdeetan behartsuetan baino. Horren ondorioz migrazio-fluxuak egungoak baino askoz emaritsuagoak ez izatea kontraesan dago jakintza konbentzionalarekin, bai eta, are larriagoa dena, eragin handiko teoria ekonomiko neoklasikoarekin ere, estu lotzen baitu nazioarteko migrazioen bolumena herrialdeen arteko errenta- edo soldata-diferentzialarekin. Munduko alde arteko desparekotasun demografikoak ikusita, zeinak ez baitira ekonomikoak baino txikiagoak, espero zitekeen nazioarteko migrazioan ekarpen handiagoa egingo zutela, alde batetik, nabarmen zahartutako herrialdeek, zeinetan adin nagusikoen kopurua azkarki handitzen baita, eta biztanleria aktiboa osatzen duten adin-taldeak txikitzen, eta,

bestetik, biztanleria aktiboa adinka azkar handitzearen ondorioz gaur egun inoiz baino handiagoak diren taldeak enpleguz eta etxebizitzaz nekez horni ditzaketan erregioek.

Bestalde, nazioarteko mugikortasuna berez bultzatzen duten faktore batzuei erreparatuta ere, harritzekoa da nazioarteko migrazioak handiagoak ez izatea. Besteak beste, hauek dira: ekonomiaren globalizazioa, zeinak izugarri handitu baitu interkonektibitatea jarduera-esparru anitzetan; garraioetan eta komunikazioetan gertatutako iraultzak; mailaz maila garatu izana lurraldeari lotu gabeko nazioarteko eskubideen corpus bat, gaitzen duten tituluak ematen dituenak, besteak beste, hala nola asilo-eskubidea edo familia berriz biltzekoa, beste herrialde batzuetan sartzeko; eta sarritan asko ordainduta oztupoak eta trabak gainditzen laguntzen duten bitartekari gero eta gehiago egotea.

Hala ere, aipatutako arrazoi horiek guztiak gorabehera, nazioarteko migrazioaren bolumena oso motel handitzen da. Hori dela eta, gure garaian, nazioarteko migrazioek ozta-ozta betetzen dute biztanleen eta aukeren artean birbanatzeko zuten eginkizun tradizionala. Horren ondorio dira hurrengo bi galderak.

4. Nazioarteko migrazioak globalizatu dira?

XX. mendearen erdialdera arte, distantzia luzeko migrazioak Ozeano Atlantikoan zeharrekoak ziren, eta migratzaile gehien-gehienak europarrak ziren, kontinente zaharretik abiatzen zirenak bizimodu berria bilatzeko mundu berrietan, Ameriketara bereziki. Egun, migratzaileak eta iheslariak leku guztietatik leku guztietara doaz, eta, beraz, migrazioak mundu-mailako bihurtu dira. Gero eta gehiago dira herrialde hartzaileak, jatorrizko herrialdeak eta iragaitzak; eta gero eta herrialde gehiagok dituzte modu nabarmenean ezaugarri horiek. Aldaketa horretan, honako hauek bereziki gertaera garrantzitsuak izan ziren: Ipar-mendebaldeko Europa, *egitez*, bilatu gabe, planetan immigrazio handiena hartzen zuen bigarren eskualdea bihurtu izana XX.

mendearen hirugarren laurdenean; gero eta leku gehiagotakoak izatea etorkinak AEBn, Kanadan, Australian eta Zeelanda Berrian; Persiar Golkoko migrazio-eskualdeak hazkunde handia izatea 1973tik aurrera gertatutako petrolioaren krisia –oparaldia beraiantzat– dela eta; Hegoaldeko Europan 80ko hamarkadatik aurrera gertatutako migrazio-trantsizioa, Pirinioetatik eta Alpeetatik igarotzen zen migrazio-muga ezabatuta; hamarraldi berean Asia-Pazifikoko eskualdea pixkanaka osatu izana, jomuga ozeaniko tradizionalak Ekialde Uruneko *tigre industrial dinamikoekin* nahasita; eta, azkenik, aurreko mendeko azken hamarkadan, Erdialdeko eta Ekialdeko Europan Berlingo harresia erori ondoren gertatutako migrazio-aldaketa eta leku horietako herritarren mugikortasuna trabatzen zuten kateak desagertu izana. Migrazioak planeta osoan gertatzen dira. Ordena transatlantiko zaharraren ondoren, polo anitzeko ordena bat ezarri da, munduan imanarena egiten duten lau migrazio-eskualde handi nabarmengarri dituena: Ipar Amerika, Europa, Persiar Golokoa eta Ozeano Bareko mendebaldeko kubeta. Gainera, nazioarteko fluxuetan europarrek izandako nagusitasuna asiarrenak, afrikarrenak eta latinoamerikarrenak ordeztu dute pixkanaka, eta parekorik gabeko askotariko giza aniztasuna ezarri dute gizarte hartzaile nagusietan.

Garrantzitsua da gehitzea ezen, globalizazioaren beste alderdi batzuetan ez bezala, zeinak trabak kentzeko eta liberalizatzeko prozesuek aurrerarazi baitituzte, migrazioena *globalizazio mugaduna* dela, barrerak ugaritu eta mugak, oro har, gogortu arren garatu dena. Europar Batasuna da salbuespen kasik bakarra, garrantzitsua bada ere, eta dauzkan barne-mugei dagokienez baino ez. Egun, ezaugarri gehien-gehienek baino eragin handiagoa dute migrazio-mugikortasunean migrazioak globalizatu izanak eta hori trabak ugarituta ere gertatu izanak, eta ez trabak desagertzeari esker.

5. Zergatik ez da handiagoa nazioarteko migrazioa?

Lehen erantzuna honako hau baino ezin da izan: immigrazioa murrizteko politiken orokortzea ia herrialde hartzaile guztietara hedatuz joan da azken mende erdian. Mugitzeko askatasuna arau izatetik salbuespen izatera aldatu da. Egun inoiz baino gehiago, beste herrialde batera emigratzeko ez da aski nahi izatea, horretarako arrazoiak izatea: nahi eta ahal izatea behar da. Gizakien proportzio handi batek ez du joan nahi bizitzera beste herrialde batera, askotariko arrazoiengatik. Baina arrazoi anitz daude pentsatzeko dozenaka edo ehunka milioi pertsonak emigratu nahiko luketela beste herrialde batera, askotariko arrazoiengatik horiek ere, eta ezin dutela, ez dutelako lortzen behar duten bisa, ez direlako ausartzen baimendu gabeko migrazioaren arriskuei aurre egitera, edo ez dutelako ordaintzeko baliabiderik. Ez dago nahi duten gehienek eskura iraun ahal izateko bisa lortzea. Eta eskatutako baimenik gabe emigratzea garestia, ziurgabea eta arriskutsua izan ohi da. Egun, estatu guztiek migrazio-mugikortasuna murrizten dute, nahiz eta bakoitzak bere orientazio eta jokabideak erabili. Ez zaio arrazoirik falta Jorgen Carling-*i gure garaia* “nahi gabeko mugikortasunik ezarena” dela dioenean.

6. Etorkinen lana gutxiago eskatzen da?

Aurreko galderari gehitu behar zaio azken hamarraldietan, herrialde hartzaile askotan, nabarmen murriztu dela kanpokoan lanaren eskaria. Hori egia da Ipar Amerikan, Europan, Asia-Pazifiko aldean, baina ez petrolioaren esportatzen duten Persiar Golkoko herrialde aberatsetan, izugarri handia izaten jarraitzen baitu. Lehen hiru kasuetan, murrizketa asko gertatutako herrialdeen egitura ekonomikoan gertatutako aldaketa kuantitatiboan eta kualitatiboan ondorioa izan da: aldaketok aurrerapen teknologikoak eta kapitalaren intentsifikazioak eragin dituzte, dozenaka milioi lanpostu alferrikako bihurtuta. Lanaren nazioarteko banaketan gertatutako aldaketek ere lagundu dute langileen eskariaren murrizketan, laneko

jarduera intentsiboak soldata-maila apalagoko herrialdeetara deslokalizatu baitituzte. Aspaldi lan-indarra, neurri handi batean etorkinena, erruz eskatzen zuten sektoreetan, besteak beste, nekazaritzan, meatzaritzan, siderurgian, ontzigitzan eta automobilgintzan, gertatutako teknifikazioak eta, ondorioz, produktibitatearen areagotzeak lan-beharrak murrizten lagundu dute. Aldaketa horiek eraginda, gehien garatutako ekonomiak ezagutzaren ekonomia bihurtu dira, eta gero eta kualifikazio handiko profesional eta migratzaile gehiagoren premia dute, dauzkaten hezkuntza-sistemek ez dituztelako behar den neurrian produzitzen. Hori dago talentua esaten zaiona erakartzeko nazioarteko egungo lehia gogorraren oinarrian. Kualifikazio ertain edo apaleko kanpoko langileekiko interesa ezin teknifika daitezkeen zerbitzu-sektoreko adarretara mugatzen da, soldata apalak ezarri behar dituztelako errentagarriak izateko, eta, horregatik, ez direlako erakargarriak bertakoentzat. Horregatik, lan-eskaria gero eta dualagoa da, *harea-erloju* itxurakoa: profesionalak eta kualifikatuak daude goian, eta kualifikazio apalagoko etorkinak, berriz, behean, aspaldi baino kopuru txikiagoan.

7. Zuzena da esatea biztanle-mugimenduek, egun, lerratze murriztaile nabarmen bati aurre egin behar diotela?

Azken mende erdian immigrazio- eta asilo-politikak areagotu dira, eta, besteak beste, fluxuak kontrolatzekoak nagusituz joan dira, gaur egun gainerakoak ia estaltzeraino. Gero eta immigrazio askotarikoagoaren aurkako jarrera sozial eta politikoak indartu ahala gertatu da hori.

Horregatik, bereziki European eta AEBn, gero eta handiagoa da legez kanpoko immigrazioari buruzko kezka, ia-ia obsesiboa, azken boladara arte ez bezala, nolabaiteko axolagabetasunarekin tratatzen baitzen. Migrazio-mugikortasuna fisikoki eragozteko harresien eta burdin-hesien kopurua izugarri handitu izana da giro sumindu horren adierazgarri: haien kopurua zazpi

izatetik hirurogeita hamar baino gehiago izatera aldatu da denbora gutxian. Atlantikoaren bi aldeetan, eta legez kanpoko immigrazioarekiko kezka eraginda, kontrol-politiken gogortze jarraitua nagusitu da, benetako ankerkeriara iristeraino. Adibideak askoz gehiago izan litezke.

Aipatu lerratze murriztaile horretan, gertaera garrantzitsua izan zen 2001eko irailaren 11ko atentatu terroristei eta ondorengoei emandako erantzuna, immigrazioari segurtasunaren ikuspegitik heltzeko joera areagotzen lagundu baitu, nahiz eta lehenago ere hedatzen ari zen Europar Batasunean immigrazio- eta asilo-politika bateratua eraikitzeko egindako lehen urratsez geroztik.

Lerratze hori asilo-politika hedatu da, gero eta gehiago jartzen baitute zalantzan edo saihesten 1951n Genevako Konbentzioak sortutako nazioarteko zuzenbidea. 1970eko hamarkadatik aurrera, asilo-araubide berri baten antzeko zerbitzu garatu da. Konbentzioaren eskaerek gero eta gutxiago hertsatzen dute, eta gero eta joera handiagoa dago asilo-eskatzaileen kopurua eta babesak jasotzeko izangaien kopurua gutxitzeko eta, ematen denean, babesaren iraupena murrizteko eta baldintzak zorrotzeko.

8. Eraginkorrak dira fluxuak eta iraunaldiak kontrolatzeko proiektuak?

Bururatsen den lehen erantzuna ezkor samarra da: fluxuak eta iraunaldiak kontrolatzeko politiken eraginkortasuna ez dago susmo ororen gainetik. 2004an bertan, Stephen Castles adituak honako izenburu adierazgarri hau zuen artikulu ospetsu bat idatzi zuen batez ere kontrol-politikei buruz: "Zergatik egiten dute porrot migrazio-politikek?". Hiru parametro izan daitezke lagungarri politika horiek ebaluatzeko: legez kanpoko egoeran dauden etorkinen kopurua nabarmen gutxitzea edo ez gutxitzea; haiei lotutako kostuak; eta sortzen dituzten aurreikusitako gabeko ondorioak, edo nahi ez direnak. Lehenengoari dagokionez, fenomenoaren berezko opakotasunak kalkulua zaildu arren, ahalegindu diren ikerketek adierazi duten legez kanpoko egoeran dauden

pertsonen proportzioak handiak eta iraunkorrak direla. AEBn, kalkulu-ahalegin sofistikatuenak eta jarraituenak egin dituen herrialdean, kopurua ia iraunkorra izan da zenbait hamarkadatan, 10 edo 11 milioi ingurukoa, aldaketa txiki samarrekin. Eta antzeko zerbait esan liteke beste herrialde batzuek, bereziki Europakoek. Bestalde, politika horien kostuak handiak eta gero eta handiagoak izan ohi dira, gero eta giza baliabide gehiago erabiltzen direlako, eta gero eta teknologia sofistikatuagoak eta garestiagoak aplikatzen direlako. Azkenik, kontrol-politikak zenbat eta murriztaileagoak izan, nahi ez diren ondorioak orduan eta garrantzitsuagoak dira. Besteak beste, honako hauek daude haien artean: giza tragediak ugaritzea itsasoetan eta basamortuetan; migrazio klandestinoaren industrian eta hari lotutako trafiko kriminaletan izandako gorakada; nazioarteko babesaren eskuratzeko lege-bideen murrizketak; migrazio-zirkulartasuna gutxitzea; eta legez kanpoko migrazioaren garrantzi soziala eta politikoa bera.

Aurrekoa esanda, gehitu behar da ezen kontrol-politikek, daukaten zuzeneko eraginkortasunetik haratago, zenbait aldetatik zailtzen eta garestitzen dutela nazioarteko migrazioa, eta, horrenbestez, migrazteko asmoa kentzen diotela pertsona kopuru kalkulaz baina, ziur aski, handi bati. Ez da funsgabea pentsatzea nazioarteko migrazio-fluxuak handiagoak liratekeela halakorik gabe.

9. Zer ulertzen da migrazio-kontrola kanpora ateratzeaz?

Herrialde hartzaile askok arazo handiak dituzte aspalditik baimendu gabeko sartzak eragozteko, eta horiei guztiei, bereziki 2014tik, legez kanpoko itsas zeharkaldietan behin eta berriz gertatutako tragedien gehikuntza nabarmena gehitu behar zaie, guztiz arriskutsuak izan, eta nabigatzeko oso egokiak ez diren ontzi ahuletan egiten baitira. Gurutzatze eta hondamendi horiek eragin politiko eta mediatiko handia dute, bigarren mailan uzteraino ez bakarrik migrazio-

fenomenoaren beste alderdi batzuk, bai eta sartzeko legez kanpoko beste bide batzuk ere, hala nola alde handiz gehien erabilitakoa, *overstaying* delakoa; hau da: muga iraupen laburreko (gehienetan turismoa egiteko) bisa batekin gurutzatzea, eta herrialde hartzailean jarraitzea egoteko eskubidea iraungi ondoren ere, sortutako egoera irregularrean. Kuantifikazioa ez da erraza, baina pentsatzen da egoera irregularrean dauden hiru etorkinetik bi legez sartu zirela, nahiz eta, ziur aski, legeari iruzur eginda.

Aipatu zeharkaldiek eta tragediek beldurrak eta alarmak handitzen lagundu dute, eta gobernu askoren ezintasun-sentimendua zorrotzu. Mugen kontrola oso zaila delako kontzientzia hedatzen ari da, jatorrizko eta iragaitzako herrialdeen laguntza izan ezean, bai ontzi arinen irteeren prebentzioari dagokionez, bai etorkin irregularrak berrartze-hitzarmenen bidez aberriratzeari dagokionez –hori aipatzean, *itzulera* eufemismoa erabiltzen da–.

Kezka nagusi horren ondorioz, aldaketa garrantzitsu bat gertatzen ari da jatorrizko eta iragaitzako herrialdeekiko lankidetzapolitikaren edukian, zeinaren xedea, orain dela gutxi arte, nagusiki baitzen *root causes* direlakoak edo emigrazioa sustatzen duten sakoneko arrazoiak desagerraraztea garapenerako laguntza-proiektuen bidez. Bigarren mailako politika molde bat zen, legitimazio-asmoek gehiago bultzatzen zutena eraginkortasun-itxaropenek baino, eta ez zuen ahalegin eta finantzaketa handirik eskatzen.

Afrika Plana izenekoa izan zen politika bide horren bertsio goiztiarrago, landuago eta alderdi anitzeko bat. Espainia izan zuen protagonista, Mendebaldeko Afrikako hamar bat herrialderen laguntzarekin, 2006ko udan txalupen krisia delakoa gertatu zenean. Egungo testuinguruan, zeinean nagusi baita itsas gurutzaketak ugaritzeak sortutako larritasuna, egokitzat jotako esperientzia harekiko interesa berritu da, eta ekimenak izan dira ildo horretan; adibidez, Valletan 2016. urtearen amaiera aldean egindako goi-bilera.

Baina *root causeak* arintzeko asmoa baztertu gabe, jatorrizko eta iragaitzako herrialdeekiko lankidetzak politikak gehiago jotzen du haien laguntza lortzera mugak kontrolatzeko, ontzi horien irteera eragotziz eta deportatuak berriz hartzea onartuz. Muga-kontrola kanpora ateratzea esaten zaionaren muina da, eta horren adierazpide muturrekoena benetako *deabruarekiko akordio* batzuk izan dira, hala nola EBk 2016an Turkiarekin itundutakoa eta Italiak 2017an, EBren oniritzia zuela, Libiarekin itundutakoa, nahiz eta bi kasuetan Europako eta nazioarteko zuzenbidearen aurka jo, eraginkortasuna EBren sorrerako balioen gainetik jarritz.

Mugen kontrola kanpora ateratzeko asmoa asilo-prozedurak gutxiago garatutako hirugarren herrialdeetara deslokalizatzen ahalegintzeraino iritsi da, eskatzaileak beren ustezko jomugako herrialdean sartzea edo, ebazpena aurkakoa edo aldekoa izanda ere, hartan irautea eragotzi nahian. Erresuma Batuak Ruandarekin egindako akordio gaitzesgarriaren kasua da, legez kontraktotzat, garestitzat, immoraltzat, gizagabetzat eta, ziur aski, eragingabetzat jo baitaiteke. Nazio Batuen inguruan, aurrekari katastrofikitzat jo dute akordioa. Baina Danimarkak denbora darama aztertzen antzeko akordioak martxan jartzeko aukera, eta Australia Nauru eta Papua Ginea Berriarekin egiten ari da.

10. Migrazio-arazoa politizatu da?

Duela zenbait urtetatik, immigrazioa, hitzaren barruan asiloa sartuta, arreta publikoaren erdigunean kokatu da, lehenago inoiz ez bezala. Etengabe agertzen da hedabideetan. Gai sistemikoa bihurtu da, *societal* anglizismoa aplika dakiokena, oro har gizarteari eta demokraziari eragiten dielako. Eta leku nabarmenean agertzen da gobernuen, nazioarteko erakundeen eta gizarte zibileko erakundeen agendetan. Ohiz kanpoko zentraltasun horren azalpena ez da neurria handitu izana, ez eta gaiari lotutako kostuen eta onuren haztapenak, egun, lehen baino balantze negatiboagoa erakustea ere.

Migrazio-arazoa zeritzonaren egungo zentraltasunaren azalpena haren esparrutik kanpo bilatu behar da, eta, zehazkiago, atxikita daukan politizazio zorrotzean, inoizko handiena baita. Hiperpolitizazio hori, alde batetik, ezaugarri autoritario eta populista nabarmenak dituen eskuin erradikaleko alderdien eta mugimenduen gorakadaren ondorio da eta, bestetik, indar politiko horiek immigrazioaren eta asiloaren arbuioa aldarrikapen nagusitzat hartu izanaren ondorio. Beraz, hiperpolitizazio negatibo bat da, gezurrezkoa neurri handi batean, fenomenoaren erabilera politikoa sorburu duena, eta indar politiko populista eta xenofoboak immigrazioaz eta asiloaz batez ere Europar eta AEBn ematen ari diren irudi negatiboan oinarrituta dagoena.

Hori dela eta, immigrazioa eta asiloa eztabaida politikoaren erdigunean kokatu dira. Horren adierazgarria da, lehenik eta behin, migrazio-gaia leku nagusia betetzen ari dela hauteskunde-prozesu askotan. Haietan, eskuin muturreko alderdi populista, nazionalista eta xenofobo bat lehen indarra izatear egon da, gobernuan sartzea lortu du, edo nabarmen handitu du bere gizarte- eta hauteskunde-babesa. Gaur egun gizarte-sektore zabaletan nagusi den immigrazioaren aurkako giroa oinarritzkoa izan zen Brexit-en aldekoak nagusitzeko Erresuma Batuan, Donal Trump-ek irabazteko AEBn, bai eta Europako zenbait herrialdetan nazionalismo zakarrek gora egiteko ere.

Aipatu giro politikoa sortu eta larritzeari dagokionez, funtsezkoa izan da alderdi eta mugimendu populistak, xenofoboak, eurofoboak eta immigrazioaren aurkakoak ugaritzea Europako hamabost bat herrialdetan, eta AEBn haien korrelatuak gora egitea. Europarkoen kasuan, ezaugarri eta bereizgarri desberdinak badituzte ere, hiru nolakotasun komun hauek aipa daitezke: izaera autoritarioa eta populista; globalizazioari eta Europa eraikitzeari dioten gorrotoa; eta, batez ere, immigrazioarekiko eta asiloarekiko etsaitasuna. Hiru ezaugarriok lelo komun honetan elkartzen dira: "espainiarrak lehendabizi"; eta horren baliokide nazionalak.

Alderdi horien estrategian, immigrazioa arbuiatzea erdigunean dago eta, hori ulertzeko gakoa, neurri batean, haien ideia identitario eta baztertzailleetan dago, baina hauteskunde-onuren bilaketa oportunistare kontuan hartu behar da. Izan ere, alderdi eta mugimendu horiek beren gizarteetako segmentu gutxi-asko zabaletan errotutako beldurrak eta segurtasun faltak areagotzen eta kapitalizatzen dituzte, eta bidegabea eta arduragabekeria litzateke haien aintzat ez hartzea. Zenbait inkestak eta bestelako iturri batzuek adierazi dute Europako gizarteetan segurtasunik ezaren sentimendua zabaldua dagoela biztanle-segmentu handietan, are diru-sarrera ertainak dituztenen artean ere. Beldur horietako batzuk, immigrazioarekin eta asiloarekin lotzen dira, faltsuki gehienetan; besteak beste: segurtasun falta pertsonala (atentatu terroristek areagotua, zeinen apriorizko errua, askoren ustez, etorkinena edo iheslariena baita); lana galtzeko beldurra; ongizate-estatuari ezin eusteko beldurra; gizarte-kohesioa hondatzekoa; eta nortasun nazionala ahultzekoa. Beldur horiei beste segurtasun falta batzuk gehitzen zaizkie, etxebizitzarekin, osasun-laguntzarekin edo pentsioekin zerikusia duten baldintza materialei lotutako ziurgabetasunaren ondorioz.

Alderdi eta mugimendu populista xenofoboek migrazio-politiketan duten eragina ez da bera herrialde guztietan. Alderdi horietakoren batek gobernuan edo parlamentu-gehiengoan sartzea lortzen duenean, immigrazio-sailaren arduraren eskatzen du gehienetan, eta orduan izan ohi da handiagoa eragina. Baina ez da inola ere garrantzi gutxikoa gobernuko alderdiek etorkinen eta iheslarien aurkako jarrerak hartzen dituztenean alderdi populistekin lehiatzeko jokaleku berean, zertarako eta haien hauteskunde-babesa gutxitzeko, askotan helburu horretan huts egin arren.

Arango, J. (2003). "Inmigración y diversidad humana. Una nueva era en las migraciones internacionales", *Revista de Occidente*, 268 (iraila), 5-21

Arango, J. (2005). "Dificultades y dilemas de la política de inmigración". *Arbor*, 181 (713), 17-25.

Castles, S. (2004). "Por qué fracasan las políticas migratorias". *Migraciones. Revista del Instituto Universitario De Estudios Sobre Migraciones*.

Migrazio-mosaikoa Espainian

Carlota Solé

Soziologiako katedradun emeritua, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa

11. Espainia emigratio- ala immigrazio-herrialdea da?

Espainiak, 1970eko urteetara arte, emigratzaileak bidaltzen zituen. 1950eko eta 1960ko urteetan, espainiar askok emigratu zuten lan bila Europako herrialdeetara; Alemaniara bereziki, baina bai eta Ingalaterrara eta Frantziara ere. Espainiarekiko soldata-aldeak nabarmenak ziren. Demokrazia iritsi ondorengo hazkunde eta garapen ekonomikoak eta 1986an Europako Ekonomia Erkidegoan sartzeak etorkinak hartzen zituen herrialde bihurtu zuten, eta, aldi berean, herrialde barruko migrazio-mugimenduak gutxitu ziren. Migrazioen Nazioarteko Erakundearen arabera (OIM), Espainia, egun, nazioarteko migrazioen jomuga diren hogeitahiru herrialde nagusietako bat da.

Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) migrazioez berriki argitaratu estatistiken arabera, migrazio-saldo positiboa, 2021eko urtarrilaren lehen, 230.026 pertsonakoa da, eta atzerritarrak, guztira, 5.375.917 dira. Kopuru horiek 153.167 pertsonako saldo begetatibo negatiboa konpentsatzen dute.

12. Nola aktibatzen dira migrazio-kateak?

Migrazio-kateena, edo maiztasun-kausazioarena, hau da, jatorri bereko biztanle-talde handi baten presentzia elementu bultzatzailea izatea beste migratzaile batzuek geroago nora jo erabakitzeo, atzerritarrak gure herrialdera iristeko faktore erabakigarrietako bat da oraindik ere.

13. Espainian, zein da migrazioen osaera?

Askotarikotasuna handitu egin da biztanle atzerritarren artean, bai eta adinen eta sexuen arabeko osaera ere: azken urteetan emakume eta adin handiagoko pertsona gehiagok emigratzen dute Espainiara. Hitz batean, immigrazioaren oraintsuko gorakadak argi uzten du etorkinak jaiotako herrialdeak gehiago direla, feminizazioa areagotu dela, eta adin-banaketa gutxiago metatzen dela gazteen artean. Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorren arabera, askotarikotasun hori erkidegoz kanpoko herritarren bizileku-baimenen fluxuan eta nazionalitateen arabeko osieran ere agertzen da.

Oraindik ere, handia da administrazio-egoera irregularrean dauden etorkinen kopurua, zehaztugabea bada ere, eta Europako beste herrialde batzuetakoa baino txikiagoa da. Espainiara 2021ean legez kanpo iritsitako etorkinak 28.700 baino gehiago izan ziren; aurreko urtean baino %51 gehiago (Barne Ministerioa, 2021). Legez kanpoko sartze horretan, familia-erreferentziarik gabeko adingabeena sakoneko arazoa da, zaurgarriak direlako eta babes juridikoa izan behar dutelako, haien kopurua txikia izan arren. Guztira 9.283 izan ziren 2021ean, Bakarrik dauden Atzerritar Adingabeen Erregistroaren arabera.

Atzerritar jatorriko biztanleak autonomia-erkidego jendetsuenetan metatzen dira: Madril, Katalunia, Andaluzia eta Valentzia. Erkidego horietan, migrazio-proiektu batzuek aisiari eta atsedinari lotutako bizi-kalitatea izatea lehenesten dute (Europako iparraldeko erretiratuek), eta beste migrazio-proiektu batzuk laneko bizitzara bideratuta daude

(gehienbat Latinoamerikakoak eta Afrikako iparraldekoak diren erkidegoz kanpokoak). Etorkinen ehuneko 80 hiri-eremuetan metatzen da, eta ehuneko 20 baino ez landa-eremuetan (CES, 2019:77).

Europar jatorriko etorkinek (errumaniarrek eta bulgariarrek batez ere) pisu konparatiboki handia dute kualifikaziorik gabeko lanetan, bai eta industriako eta eraikuntzako enplegu kualifikatuko lanetan ere. Latinoamerikarrek eta marokoarrek, ordea, beste jatorri bat duten edo erkidegoz kanpokoak diren etorkinen artean (hau da, Europar Batasunekoak ez diren herrialdeetatik iritsitakoen artean), pisu handiagoa dute kualifikaziorik gabeko lanetan: zerbitzuak, jatetxeak, zerbitzu pertsonalak eta saltzaileak. Emakumezko etorkinen okupazio-egitura da lan horietarantz lerratuen, zeregin horietan metatuen, bereziki etxe-zerbitzuari dagokionez. Horren arrazoia da ia guztiak soldatapeko gisa enplegatuta dauden sektore pribatuan behin-behinekotasuna handia dela, pisu handia duela lanaldi partzialeko lan ez-boluntarioak eta azpienplegua dagoela ordu-eskasiagatik (jarduera ekonomikoko adar bereko batezbestekoa baino lanordu gutxiago)..

14. Nola lortzen da bizilekuzko nazionalitatea?

Espainiar nazionalitatea eskuratzea 1889ko Kode Zibilean araututa dago. 1004/2005 Errege Dekretuak nazionalitatea lortzeko lau bide berresten ditu: ezkontza bidez, ondorengoengatik eta aukera bidez (seme-alaben bitartez), bizileku bidez. Nazionalitatea bizileku bidez lortzeko, hau da, naturalizazioa deritzon prozeduraren bidez, beharrezkoa da denboraldi batez bizitzea herrialdean. Orokorrean, etorkinek hamar urtez bizitzeagatik eska dezakete nazionalitatea. Aldi hori bi urte txikiagoa da Latinoamerikako herrialdeen, Espainiarekin muga (Andorra, Portugal) duten herrialdeen eta harreman historikoak (Filipinak, Ekuatore Ginea) izan dituztenen kasuan. Horrelakoetan, ez zaio uko egin behar aurreko nazionalitateari, eta nazionalitate bikoitza lor daiteke. Iheslariek bost urtez bizi izan direla egiaztatu behar

dute. Ezkontza bidezko nazionalitatea lortzeko, urtebete bizi izana egiaztatu behar dute espainiar batekin ezkonduetakoek, edo Espainian jaiotako espainiarren seme-alabek/bilobek. Etorkinek Espainia bost urteko aldi jarraitu batez bizileku iraunkorra izateko baimena eska dezakete; figura juridiko hori nazionalitatearen figura ez bezalakoa da, eta Barne Ministerioak arautzen du.

Justizia Ministerioak, 2021eko martxoaren 5etik azaroaren 24ra arte, talka-plan bat jarri du praktikan, atzerritar nazionalitateko espedienteak berrikusteko, eta etorkin asko herritar-eskubide eta -betebehar osoak dituzten espainiar bihurtzeko.

15. Zein dira 2007-2008ko krisi ekonomikoaren eta COVID-19 osasun-krisiaren ondorioak?

2007-2008ko krisi ekonomikoak aldaketa bat eragin zuen joera orokorrean, eta Espainia emigrazio-herrialde bihurtu zen aldi batez. Orduan migrazio-errefluxu bat gertatu zen: espainiar batzuk atzerrira abiatu ziren, eta etorkin batzuek beste herrialde batzuetara emigratu zuten berriz lan bila. Aldi labur batez, Espainia berriz ere emigrazio-herrialdea izan zen. Hala ere, krisia gorabehera, etorkinek Espainiara iristen jarraitzen dute, bertan ezarri eta integratzeko. COVID-19aren krisiak ere eragina du migrazio-fluxuetan, ez mugitzera behartzen dituelako arrazoi ekonomiko edo politikoengatik migratu nahi duten pertsona asko, eta migrazio-fenomenoa aztertzeko beste egoera bat sortzen du (Oso, L., López-Sala, A. eta Muñoz-Comet, J. 2021:3-4).

2007-2008ko krisi ekonomikoa eta COVID-19aren krisi sanitarioa eta ekonomikoa direla eta, 2020-2021ean soldaten murrizketak eta enplegu-galerak soldata apaleneko langileei eragin die, eta etorkinak kolektibo horretan daude. Erkidegoz kanpoko herrialdeetatik etortitako gizon eta emakumeen artean, ia ehuneko 90ek irabazten dituzten soldatak batezbestekoen azpitik daude, eta portzentaje hori emakume eta gizon espainiarren artean gertatzen denaren oso gaineratik dago.

16. Ba al dago diskriminazio-egoerarik?

Espanian, Europako eta Mendebaldeko beste herrialde askotan bezala, diskriminazio-egoerak daude etorkinen kontratazioan. Azalpenak kulturalak dira: baliteke enplegatzaileek atsegina ez izatea gutxiengo etnikoak, eta kontratatuta beharreko langileak hautatzea dauzkaten aurreiritzi psikologikoen arabera eta etorkinek produkzio-lan jakin batzuk egiteko ustez duten gaitasunik eta eraginkortasunik ezari buruzko estereotipoak kontuan hartuta. Ikuspegi estereotipatu horietan oinarrituta, enplegatzaileek erabaki indibidualak har ditzakete gutxiengo etniko batzuen kontratazioari buruz.

Beste azalpen bat instituzionala da: enplegatzaileek diharduten eta erabakiak hartzen dituzten testuinguru instituzionalaren arabera biltzen eta ordaintzen dituzte langileak. Eta hala, talde etnikoen aurkako diskriminazio-egoerak desberdinak dira herrialdeen arabera. Diskriminazio etnikoa testuinguru instituzionalaren eta lan-eskatzailaren ezaugarrien arteko interakzio konplexuaren emaitza da. Alde handiak egon daitezke talde etnikoen artean: Biztanle multzo handienaren eta talde horien arteko alde sozial eta kulturala zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da diskriminazioa (Lancee, B., 2021:1192-1195). Lan-merkatuan, diskriminazio etnikoak indarrean jarraitzen du Europako eta Ipar Amerikako herrialde askotan, gutxiengo etnikoen mugimendu sozial indartsu eta aktiboak eta gobernu sozialdemokratek edo aurrerakoiek bultzatutako politika sozialak gorabehera.

2008ko krisiak Espainiako ekonomiari eragin zion, eta langabezia handitu zuen, eta, horrenbestez, egile batzuek diote kausazko erlazioa dagoela haien artean: langabezia immigrazioarekin batera handitzen da. Hori migrazio-politikak gure herrialdean dituen ezaugarriekin lotzen da: langile etorkinak erregularizatzeko zenbait plan izan dira, lan-baimenak bermatu dizkietenak etorkin irregularrei eta legez kanpo bizi zirenei; adibidez, 1985-1986ko, 1991-1992ko, 1996ko, 2000-2001eko eta 2005eko planak. Iritzi orokorra da etorkinek lanpostuak kentzen

dizkietela bertakoei, baina etorkinek egiten dituzten lanetan nekez aurkitzen da bertakorik. Lan-merkatuan, lehia lanerako antzeko prestakuntza-maila duten etorkinen eta bertan jaiotakoen artean gerta daiteke. Gainera, 2008ko krisi ekonomikoak eta XXI. mendeko lehen hamarkadan erkidegoz kanpoko immigrazioa areagotzeak eraginda, immigrazioaren aurkako sentimenduek gora egin dute, eta eskuin muturreko alderdi politikoei boto gehiago lortu dituzte.

Hala ere, datuek adierazten dute langabezia handiagoa dela erkidegoz kanpoko atzerritarren artean, eta txikiagoa Europako etorkinen kasuan, batez beste duten prestakuntza-maila beste jatorri batzuk dituzten atzerritarrena baino handiagoa delako. Azken horiek bertakoei baino prestakuntza-maila txikiagoa (baino ez askoz txikiagoa) izan ohi dute.

Etorkinen egoera ekonomikoa lan-merkatuan jasotako soldaten arabera da; hau da, etorkinen etxe gehien-gehienetan duten diru-iturri bakarraren arabera. Etorkin ekonomikoaren eta espainiarren arteko soldata-tarteak handiak izanda, erkidegoz kanpoko emakumezko etorkinek dituzte soldatarik apalenak.

Hartara, langile etorkinak daude errenta txikiro familia-etxeen zerrondako buruan, eta pobrezia-arrisku handia dute, espainiarrena baino askoz handiagoa (2,5 aldiz handiagoa). Gehien-gehienak alokairuko egoitzetan bizi dira, eta batzuetan azpierreant emanak dira. Auzo herritar jakin batzuetan bizi dira, baina horrek ez du nahitaz esan nahi pertsona horiek segregazio soziala jasaten dutela. EINEk 2019an bizi-baldintzez egindako inkestak adierazten du gabezia material larria dutela; izan ere, familia immigratzaile askok (%65ek) ezin diote aurre egin ustekabeko gastu bati dauzkaten baliabideekin (hau da, mailegua eskatu edo epeka erosi gabe), eta ezin dute oporrik hartu urtean, ez eta astebetekoa izanda ere.

17. Eskas dira oinarrizko prestazioak?

Etorkin askok ez dituzte oinarrizko prestazio batzuk, langabezia-asegurua adibidez, Ongizate Estatutik, beren soldatapeko lanetik jasotzen dituzten prestazio sozialak bideratu egiten baitituzte. Espainian, atzerritarren ehuneko bik baino ez ditu jasotzen kotizaziopeko pentsioak, Espainiako 65 urtetik gorako biztanleen ehuneko 3,4ren proportzioan. Horrek bereziki eragiten die etxe-zerbitzuan lan egiten duten emakumezko etorkinei (erregimen horretan afiliatutako pertsonen %43,4), nekazaritza-sektoreko atzerritarrei (afiliazioaren %27), eta langile autonomoei, erregimen berezien eraginpean baitaude. Hitz batean, langile atzerritarren eta haien familien gizarte-babesa konparatiboki txikiagoa da eta, batzuetan, ez da nahikoa.

Hala ere, gehiago pentsatzen da etorkinek Ongizate Estatuaren prestazioetatik ateratzen duten onura handiagoa dela hari eusteko egiten duten ekarpena baino, eta, proportzioan, bertakoek baino gehiago jasotzen dutela Ongizate Estatutik, eta harekiko dependentzia handiagoa dutela. Baliabide urriak eskuratzeko lehiak, hala nola lanlekuak eta gizarte-onurak eskuratzekoak, gatazka eragin dezake, bai eta barrukoenganako faboritismoa eta kanpokoenganako etsaitasuna ere. Talde sozial eta politiko batzuek immigrazioa kontrolatu nahi dute, eta etorkinen mesederako izan daitezkeen politiken aurka daude, batez ere uste badute etorkinen presentziak baldintza ekonomikoak larriagotzen dituela, lehendik ere prekarioak baitira denentzat. Ikuspegi horretan, ekonomiaren egoerak eta etorkinen kopuru handiak dute eragina (Fierro, J. eta Parella, S., 2021: 3).

Ahalbide ekonomikoek eta bizilekuak ere eragina dute etorkinak hezkuntza-sisteman metatzean. Etorkinen seme-alabak ikastetxe publikoetan metatzen dira, eta lanbide-heziketa ikasten dute gehienbat. Maila sozioekonomiko txiki samarra izateak eta hartzen dituzten ikastetxe publikoetako askok baliabiderik ez izateak eragina dute pertsona

horien eskola-errendimenduan. Estatus sozioekonomikoak, kulturalak eta linguistikoak azaltzen dute neurri batean errendimendu apal hori. Oro har, ohikoa da eskola-uzte goiztiarra, eta ikasle atzerritarren hezkuntza-lorpenak bertakoenak baino apalagoak dira.

Osasun-arretan eta gizarte-zerbitzuetan sarbidea izateari dagokionez, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzko 4/2000 Legea egin ondoren, pertsona horiek osasun-laguntza jasotzeko eskubide esplizitua izan arren, osasun-baliabideen erabilera oso txikia da, erkidegoz kanpoko etorkinek osasun ona izan ohi dutelako, oraindik gazteak izateagatik. Ez ohi dira joaten lehen mailako arretako eta arreta espezializatuko zentroetara, salbuespenak salbuespen. Sartze txikiagoa dute lehen mailako arreta-zerbitzuetan eta gutxiago erabiltzen dituzte zerbitzu prebentiboak.

18. Zaintza-sistemak berriz familietara itzultzen dira?

Iraupen luzeko zaintza-lanak (desgaitasun, eritasun edo adinaren ondorioz mendekotasun-egoeran dauden pertsonak, askotan bakarrik bizi direnak, eta ohiko zaintzen laguntza gabe) emakumezko etorkinek egiten dituzte nagusiki, Europako beste herrialde batzuetan bezala.

Espainian, zerbitzu horien kontratazioa orokorra da 2010etik. Herrialde batzuetan (Suedian, adibidez), 2008ko krisi ekonomikoaren eraginez, arreta-zerbitzuak sektore publikotik pribatura aldatu ziren, batez ere etxez etxeko zerbitzuak. Merkantilizazio horrek neurri batean eragin du zaintza-sistemak berriz familietara itzultzea, eta esparru instituzional publikotik (erresidentziak) familien esparru pribatura eta merkatura aldatzea. Bestalde, autoenplegua handitu da etorkinen artean, soldatapeko enplegu-urritasunari erantzuteko, eta egoera irregularrak sortu dira.

19. Zein dira lege-aldaketak Espainian migrazioei dagokienez?

1985ean, Espainia Europako Ekonomia Erkidegoan sartu baino urtebete lehenago, atzerritartasunari buruzko lehen lege organikoa onartu zen, 7/1985 Lege Organikoa, uztailaren 1ekoa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzkoa, eta, ondoren, 7/1985 Lege Organikoaren planteamendu murriztaileak gainditzen dituzten bi hauek onartu ziren: 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzkoa eta 8/2000 Lege Organikoa, abenduaren 22koa.

2009an, atzerritartasunari buruzko legediaren erreforma kudeatu zen (CES, 2018:190-193). Abenduaren 11ko 2/2009 Lege Organikoak, zeinak atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa aldatzen baitu, guztiei beren eskubideak osorik baliatzea bermatzen dien eskubide- eta askatasun-esparru bat ezartzen du. Lege-aldaketek, zeinen adibide baitira 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzkoa eta 8/2000 Lege Organikoa, abenduaren 22koa, 7/1985 Lege Organikoaren planteamendu murriztzak gainditzen dituzte.

Immigrazioari buruzko Espainiako lege-aldaketa garrantzitsu bat hau izan da: 903/2021 Errege Dekretua, urriaren 19koa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua aldatzen duena (2021eko urriaren 20an argitaratua), apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuak onartutako 2/2009 Lege Organikoaren bidez aldatu ondoren. Etorkin diren adingabeei eta gazteei eragiten die, eta Espainian lan egiteko eta bizitzeko dituzten aukerak arautzen dira, horrek geroan gizarteratzeko eta kulturaren txertatzeko dakarren guztiarekin. 2021eko erregelamendu berriak araubide propio bat taxutzen du, bizileku-baimenaren jarraipena planteatzen duena lan egiteko gaikuntzarekin. Enplegu-egoera nazionalaren baldintza ez

da aplikatzen baimen horiek lortzean edo berritzean. Aldatzen den beste eskakizun bat da behar adina baliabide ekonomiko izatea, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren ehuneko ehun, bizileku-baimena berritzeko. Diru-sarrera horien kalkuluan, laguntza sozialetik datozenak edo gazteak jasotzen dituen beste zenbatekoak kontuan hartu ahal izango dira

20. Zein dira migrazioen ondorio positiboak eta negatiboak Espainian?

Espainian langile etorkinak egotea onuragarria da bertako ekonomia eta gizarterearentzat. Etorkinak lagungarriak dira biztanleen zahartzea murrizteko, biztanleria aktiboa handitzeko eta Espainiako ekonomian pisu handia duten eta eskulanean intentsiboak diren sektore ekonomikoak dinamizatzeko: eraikuntza, ostalaritza, turismoa, merkataritza, nekazaritza, etxe-zerbitzua, mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko zerbitzu pertsonalak eta abar. Erkidegoz kanpoko emakume asko zaintzailan horietan eta etxeko zereginetan aritzea oso mesedegarria da bertako emakumeek lan-arloko parte-hartzea izan dezaten daukaten prestakuntza akademiko edo profesionalarekin bat datozen produkzio-jardueretan.

Immigrazioaren balantze fiskala, hau da, zerga eta kotizazio bidez kutxa publikoetan uzten dutenaren eta diru- edo zerbitzu-prestazio moduan jasotzen duenaren arteko saldoa, positiboa da, langabeen eta txiroen artean etorkinen kopurua neurritz gainekoa izan arren. Immigrazioak Gizarte Segurantzari eusten laguntzen du Espainian. Diru-bidalketak, halaber, onuragarriak dira jatorrizko herrialde eta eskualdeen garapen ekonomikorako.

Etorkin ekonomikoak, klimatikoak, iheslariak edo berriz itzultzen direnak iristean, erreakzio positiboa da pertsona horiek egitura sozioekonomikoan eta bizitza politiko eta kulturalan soziokulturalki txertatu nahi izatea, integrazio hori kudeatzea. Etorkinen eta haien

seme-alaben integrazioari dagokionez, ulertzen da bi populaziotako edo gehiagotako kideak eta elementu kulturalak egitura ekonomiko, sozial eta kultural bakar batean barneratzen direla. Arrazakeria, xenofobia eta populismoak, berriz, etorkinak sartzearen eta presentzia izatearen aurkako erreakzioak dira.

Fiero, Jaime y Parella, Sònia (2021). "Social trust and support for immigrants' social rights in Spain", *Journal of Ethnic and Migration Studies*, DOI:10.1080/1369183X.2021.19516

Lancee, Bram (2021). "Ethnic discrimination in hiring: comparing groups across contexts. Results from a cross-national field experiment", *Journal of Ethnic and Migration Studies*, 47:6, 1181-1200, DOI: 10.1080/1369183X.2019.1622744

Oso, Laura, López-Sala, Ana eta Muñoz-Comet, Jacobo. (2021). "Migration policies, participation and the political construction of migration in Spain", *Migraciones* 51, 1-29

Demografia eta immigrazioa

Mikolaj Stanek

Irakasle Titularra, Soziologia eta Komunikazio Saila, Salamankako Unibertsitatea

21. Oro har, nolako eragina dute migrazioek herrialde hartzaileen egoera demografikoan?

Gertatzen denean, immigrazioak oso eragin handia du herrialde hartzaileetako biztanlerien egitura eta dinamika demografikoetan. Immigrazioaren ondorio lasterrena biztanleria balio absolutuetan handitzea da. Egun, immigrazioa da biztanleria aldatzeko faktore nagusia herrialde hartzaile gehienetan, haien artean Espainian ere bai. Hala bada, Mendebaldeko Europako herrialde gehienetan, etorkinen iritsierek gehiago laguntzen dute biztanleria-aldaketan bertako populazioen jaiotza-tasan baino. Ugalkortasun-tasarik handienak izaki, etorkinek ugalkortasunaren bidez laguntzen dute biztanleriaren hazkundera. Immigrazioak adinen araberako egiturak gaztetzen ditu populazio hartzaileetan, etorkinak gehienetan gazteak izatearen zuzeneko ondorio moduan. Azkenik, etorkinek heriotza-tasa apalagoak izan ohi dituzte, eta hori lagungarria da harrerako-populazioen heriotza-tasak hobetzeko. Geroago ikusiko dugun bezala, immigrazioaren ekarpen demografiko horietako gehien-gehienak, dudarik gabe onuragarriak izan arren, ez dira inola ere gure inguruko herrialdeek honako hauei lotuta aurre egin behar dieten arazoak konpontzeko panazea: jaiotza-tasa txikia, zahartzea eta gero eta dependentzia-tasa handiagoa. Europako herrialdeetan bizi diren atzerritarren kopurua txikiegia da ugalkortasun-tasek, heriotza-tasa txikiak eta adin-egitura gazteak eragin eraldatzailea izan dezaten egungo joera demografikoetan.

22. Emakumezko etorkinek espainolek baino seme-alaba gehiago dituzte?

Atzerritar emakumeek bertan jaiotakoek baino seme-alaba gehiago izan ohi dituzte ugalkor diren bitartean eta, beraz, ugalkortasun-tasa handiagoak. Hala bada, bertako biztanleen kopuruan eragin zuzena izateaz gain, etorkinek, jaiotzen bidez, herrialde hartzaileetako jaiotzen kopurua handitzen laguntzen dute. Datuak adierazgarriak dira. Espainian 2021ean jaiotako lau seme-alabatik batek atzerritarra izan zuen gutxienez gurasoetako bat. Erraz azal daiteke fenomeno hori. Etorkinak ugaltzeko adin betean dauden gazteak izan ohi dira. Gainera, emakumezko etorkinen ugaltze-egutegia aurreratuagoa da; hau da, askoz lehenago izaten dute lehen seme-alaba. Azkenik, etorkinek beren jatorrizko herrialdeetako ugaltze-ereduak ekartzen dituzte berekin, eta jaiotza-mailak nabarmen handiagoak dira horietan. Hala ere, ñabardura batzuk egin behar dira baieztapen horiei buruz. Etorkinek jaiotzen kopurua eta, beraz, biztanleriaren hazkunde naturala handitzen lagundu arren, txiki samarra izan ohi da harrerako herrialdeko ugalkortasun-tasan duten eragina. Adibidez, 2021ean, etorkinen ugalkortasun-tasa koitunturala 1,38 eta emakumezko espainolena 1,16 izan ziren, baina biztanleria osoarentzako tasa ez zen izan emakumeko 1,2 seme-alabatik gorakoa. Arrazoia da etorkin jatorriko emakumeak umeak izateko adinean dauden emakume guztien proportzio txiki bat direla.

23. Atzerritar immigrazioa Espainiako ugalkortasun apala gainditzeko modu bat da?

Etorkinek eragin onuragarria izan arren herrialde hartzaileetako jaiotza-maila gero eta txikiagoetan, ezin pentsa daiteke konpon dezaketenik herrialde askotan, besteak beste Espainian, duela hainbat hamarkadatatik ugalkortasun-tasa apalei lotuta daukaten arazo demografikoa. Bestela esanda, etorkinen seme-alaben jaiotzek nekez urrunduko gaituzte egungo ugalkortasun-tasa apaletik (emakumeko 1,2 seme-alaba), eta nekez hurbilduko gaituzte belaunaldiak ordeztuko atalase irrikatura (emakumeko 2,1 seme-alaba). Eta hori hainbat arrazoirengatik. Lehenik eta behin, aurreko epigrafean esan bezala, atzerritarrek ugalkortasunean egiten duten ekarpena oso txikia da, onuragarria bada ere. Atzerritarren ugalkortasunaren eragina funtsezkoa izateko, emakumezko etorkinek zenbait aldiz pisu handiagoa izan beharko lukete Espainiako biztanlerian. Bigarrenik, ia jatorri guztietako emakumezko atzerritarren ugalkortasuna ordezte-tasaren azpitik dago. Hirugarrenik, Espainiako eta beste herrialde batzuetako esperientziak adierazten du ugaltze-ereduek gizarte hartzaileek dituztenetara hurbiltzera jotzen dutela.

Etorkinak ez dira panazea bat Espainian ugalkortasun-tasa apalen arazoari aurre egiteko, baina irtenbidearen zati bat izan daitezke, jaiotzaren aldeko politika publikoak izanez gero. Hala bada, etorkinen jaiotza-tasa, bertakoena bezala, besteak beste instituzio sozial eta ekonomiko hauek aldi berean eta koherentziaz eraldatzeko gauza diren neurri batzuen mende dago: zerga-sistema; haurrentzako zainketak; hezkuntza-erakundeen funtzionamendua; etxebizitzaren merkatua; eta enpresetako lan-kultura.

24. Etorkinek bizi-itxaropen handiagoa dute?

Zenbait azterketak adierazten dute etorkinen heriotza-tasa bertakoena baino txikiagoa dela, eta osasun hobea dutela. Fenomeno horren ondorioetako bat da etorkinen bizi-itxaropena bertakoena baino handiagoa izatea. Erregularitasun horrek ikertzaileen arreta bereganatu du, ez bakarrik etorkinak testuinguru sozioekonomiko behartsuenetara etorri ohi direlako, bai eta harrerako herrialdean desabantaila handiagoak izan ohi dituztelako ere. Fenomeno horren azalpen batzuk proposatu dira, eta adierazgarrienak etorkinen osasuna migrazio-prozesuaren beraren hautakortasunarekin erlazionatzen du. Argudiatzen da etorkinak ez direla jatorrizko biztanleriaren lagin adierazgarria, baina indibiduo osasuntsuenen eta prestatueneren hautaketa bat, eta horrek azal dezake, neurri batean behintzat, zergatik bizi diren hainbeste. Beste azalpen batzuek bizimodu osasungarriagoekin lotzen dute etorkinen bizi-itxaropen handiagoa. Inguruneko beste herrialde batzuetan bezala, etorkinek heriotza-tasa txikiagoa izan ohi dute Espainian ere, baina alde hori asko murriztu da krisi ekonomikoaren eta COVID-19aren epidemiari lotutako osasun krisiaren ondoriozko kalte handiengatik.

25. Atzerritarren immigrazioa biztanleria zahartzearen aurkako erremedioa da European?

Zahartze demografikoa da pertsona nagusiek biztanle guztien artean duten pisua erlatiboki handitzea, ugalkortasun-tasa txikitzearen eta bizitza luzatzearen ondorioz. Zahartzea, egun, arduradun politikoen eta iritzi publikoaren kezka nagusien artean dago. Herrialde askotan, immigrazioa zahartzeari aurre egiteko bideetako bat dela pentsatzen da. Argudioa hau da: adin-egituran duen eragin zuzenaz gain, etorkinen ugalkortasun-tasa handiagoak

lagungarriak izango dira gero eta hazkunde begetatibo ahulagoa suspertzeko. Ikerketa askok adierazi dute uste horiek baikorregiak direla, eta immigrazioak ezin alderantzika ditzakeela egungo zahartze-prozesuak, baina bai pixka bat moteldu, haien ondorio sozial eta ekonomikoak arinduta. Nazio Batuen Erakundeak ordezte-migrazioaz egin eta duela bi hamarkada baino gehiago argitaratutako txosten ospetsuak bi joera aurreikusten ditu etorkizunerako. Lehenaren arabera, migrazio garbiaren arrazoizko gehikuntzak (850.000 etorkin inguru urtean, Europar Batasunaren kasuan) zahartzea atzera dezake, lan egiteko adinean dauden biztanleen kopurua txikitzeari aurre eginez. Bigarrenaren arabera, EBko biztanleen zahartze-prozesua alderantzikatzea oso egoera irreal batean (urtean 1.500.000 etorkin inguru etortzea) baino ez da posible. Hitz batean, migrazioa ezin da hartu biztanle-zahartzea alderantzikatzeke panazeatzat. Hala ere, etorkinak erakartzeko politikak kontuan hartu behar dira, bai eta jaiotza-tasa sustatzeko eta familiei laguntzeko politikak ere, zahartzeak aurrera egitea moteltzeko neurrien artean, ahaztu gabe behar-beharrezkoa dela eredu ekonomikoa eta ongizate-estadia sistematikoki eta sakon birmoldatzea, biztanleria zaharkitu eta urtetsuetara egokituta.

26. Pentsioak ordainduko dizkigute etorkinek?

Biztanleria zahartzearen ondorioetako bat mendekotasun-tasak handitzea da; hau da, handiagoa izatea ekonomikoki aktiboak ez diren adinetan dauden pertsonen pisua lan egiteko adinean dauden pertsonen artean. Mendekotasun-tasa txikia funtsezkoa da finantza-orekari eusteko, pentsio-sistemak, Espainian bezala, banaketa-sisteman oinarrituta badaude. Honako

hauek dira, besteak beste, mendekotasun-tasa handiagoen ondorio: etorkizuneko belaunaldiek zerga-karga handiagoa jasan behar izatea; pentsio publikoaren mailek okerrera egitea; eta adinekoen osasunarekin eta mendekotasunarekiko zaintzarekin zerikusia duten zerbitzu publikoen kalitatea jaistea.

Espero izatekoa denez, aurreko epigrafean azaldutakoa kontuan hartuta, immigrazioa ez da irtenbidea pentsio sistemari eusteko. Zenbait erakundek egindako proiektioek adierazten dute ezen, gaur egungoaren antzeko mendekotasun-tasa izaten jarraitzeko, lan egiteko adinean dauden milioitik gora etorkin erakarri beharko lirakeela urtean, 2050era arte. Jario handi hori ezinezkoa da, aurreikuspenek baitiote Europaranzko immigrazioa murriztu samartuko dela hurrengo hamarkadetan. Gainera, adituek azpimarratzen dute migrazio-tasa garbia asko handitzea ere ez litzatekeela aski izango kontu publikoen iraunkortasuna bermatzeko, beharrezkoa bailitzateke etorkizuneko fluxuetan etorkinen kalifikazio-mailak etorkizuneko lan-merkatuen premiei erantzuteko behar bezain handiak izatea. Hitz batean, demografia garrantzitsua da, baina ez da dena. Pentsio-sistemaren desorekari lotutako erronkari osoko erantzuna eman beharko litzaioke: pentsio-sistemaren egiturazko erreformak; lan-aktibaziorako politikak ezartzea, okupazio-tasa handitzeko; Espainiako enpresen produktibitatea handitzea; eta abar.

27. Nazioarteko immigrazioak landa-eremuetako despopulazioaren ondorioak alderantzika ditzake Espainian?

Kezka sozial handiak dira despopulazioaren ondorio ekonomiko, sozial eta demografikoak. Espainia hustua delakoa ugaltze-tasa murriztearen eta ugaltzeko adinean dauden pertsonak landa-eremutik joatearen ondorioz sortu da. Azken hamarkadetan, pentsatu izan da despopulazioa konpontzeko aukera posible bat dela etorkinak iritsi eta landa-eremuetan ezartzea. Izan ere, Espainian egindako azterketek adierazi dute nazioarteko immigrazioak, hiri-esparruetako biztanle kopurua handitzen laguntzeaz gain, eragin onuragarria duela landa-biztanleriaren tamainan. Ikusi da ezen, batzuetan, etorkinak landa-eremu jakin batzuetara masiboki iristeak biztanle kopuruari eustea ahalbidetu duela, eta, bestetuetan, biztanle kopuruak gora egin duela, hamarkada batzuetan etengabe jaitsi ondoren. Gainera, landa-eremuetarantzko migrazioak adinkako egitura berritzen du, eta ez bakarrik etorkinak berak gazteak direlako, bai eta adingabeko seme-alabekin datozelako ere, edo bizileku berrietan seme-alabak izatea erabakitzen dutelako. Baina, beti bezala, horretaz zenbait ñabardura egin behar dira. Zenbait azterketak adierazi dute landa-eremuetan bizitzea erabakitzen duten etorkinek herri ekonomikoki dinamikoak eta zerbitzu publiko onak dituztenak lehenesten dituztela. Hala bada, nazioarteko etorkinen landa-jomugak, nagusiki, hiri handietatik hurbil dauden herriak dira, edo langile-eskari handia dute, adibidez, laborantza intentsiboan edo ostalaritzan. Ez da harrizkoa, beraz, immigrazioetik onura handiena ateratzen duten landa-inguruneak gutxien hustu direnak izatea. Hitz batean, inozoa litzateke pentsatzea nazioarteko immigrazioa dela Espainia hustuaren arazoa konpontzeko miraritzko bidea.

Bertakoek bezala, etorkinek ere nahi dute bizi diren lekuetan lana izatea, bizi-maila ona ziurtatzeko, eta kalitate oneko hezkuntza- eta osasun-zerbitzuak aurkitzea. Atzerritarrak erakartzeko, bertakoak atxikitze bezala, nahitaezkoa da kalitateko zerbitzuak ezartzea landa-ingurunean, eta garapen-aukera endogenoak sortzea, erakargarria izan dadin egungo eta geroko biztanleentzat, haien jatorria edozein dela ere.

28. “Ordezte handia” gertatzen ari da migrazioen ondorioz?

Migrazioek errezeloak eta beldurrak piztu dituzte Atlantikoaren bi aldeetako eskuin muturreko eta supremazismo zuriko sektoreetan. Aurreiritzi horiek Renaud Camus pentsalari frantziarrak 2011n argitaratu *Le Grand Remplacement* liburuan proposatutako “ordezte handiaren teoria” delakoan adierazi dira. Egilearen arabera, munduko elitearen konplot bat dago, europar jatorriko eta kristau-tradizioko populazio zuriak europar ez diren migratzaileekin ordezteko. Konjurazio horren helburua da Europako gizarteak masa otzan eta berezko nortasunik gabeko bat izan daitezen lortzea. Camus-ek dio bi fenomeno nagusiki demografikoz elikatzen dela prozesu hori: etorkinen helduera masiboa eta haien ugalkortasun-tasa handiagoak. Demografoek laster baliogabetu zituzten tesi horiek eta adierazi zuten, haien arrazakeria esplizitua eta obsesio konpiranoiko argia alde batera utzita, ez dagoela tesi horiei eusteko ebidentzia zientifikorik. Immigrazioa da aldaketa demografikorako faktore nagusia herrialde askotan, baina ezerk ez du adierazten europar ez diren biztanleak

Europako biztanle zuriak ordezten ari direnik. Aurreko epigrafeetan adierazi bezala, etorkinak iristeak biztanleria-prozesu batzuk leundu ohi ditu, hala nola, adibidez, zahartzea eta ugalkortasun txikia, baina ez du inola ere ordezte-eraginik. Hori epe ertain eta luzean gertatzeko ebidentziarik ere ez dago. Azken urteetan migrazio-fluxuak unean-unean areagotu arren Afrikako, Ekialde Hurbileko eta Asiako Erdialdeko gatazken ondorioz, joan-etorri horiek koiunturalak izan dira. Aurreikuspen demografikoen arabera, joan-etorrien areagotze funtsezko eta luze bat gertatuko da Hegoalde globala deritzonetik Europako herrialdeetarantz eta garapen handiko beste batzuetarantz.

29. Europaranzko migrazioa garapen-bidean dauden herrialdeetako presio demografikoaren ondorioa da?

Kazetari askok eta akademiko ez gutxi presio demografikoa terminoa erabiltzen dute gutxien garatutako herrialdeetatik Ipar globaleko herrialde aberatsetarantz gertatzen diren fluxuak azaltzeko. Termino horrek aditzera ematen du badagoela indar bat, pertsonak trumilka bultzatzen dituen beren etxeak utzi eta herrialde oparoenetako mugak gainezkatzea. Populazio-dinamikei buruzko ikuspegi mekanizista horren arabera, indar kontrolaezin horren iturria jaiotza-tasa handien ondoriozko biztanle-gehiegia da, tokian tokiko lan-merkatuek ezin berengana baitezakete, eta ekonomiek ezin baitute elikatu. Azken hamarraldietan, sarritan erabili da presio demografikoa terminoa Afrikatik Europaranzko fluxuak deskribatzeko. Iritziemaile batzuek Afrikako ugaltze-tasak nabarmentzen dituzte, Saharaz hegoaldean munduko handienak direlako, bai eta gazteek guztizko biztanlerian duten pisua ere. Afrikako populazioen adin-egiturako gazteria, zeina bereziki nabarmena baita kontinenteko herrialde pobreenetan, kontinente horretatik abiatzen diren migrazioak bultzatzen dituen indar eragile nagusizat hartzen da. Oraintsuko ikerketek auzitan jarri dute tesi hori. Erakutsi dute 15-35 urteko pertsonak biztanleria

osoan duten pisu erlatiboak Afrikatiko emigrazio-tasetan eragin nabarmena duela, baina korrelazioa negatiboa izan daitekeela herrialde batzuen kasuetan. Azpimarratzen da jaiotza-tasak jaisten diren Afrikako herrialdeetan hobera egin ohi dutela bizi-baldintzen adierazleek, eta Afrikako emigrazioa nagusiki herrialde horietatik abiatzen dela. Era berean, iritziemaile batzuek eta herri-jakintzak besterik iradoki arren, ez dira dinamika demografikoak nazioarteko fluxuen gorakadan eragin nabarmena duten faktoreak, baina garapen ekonomikoa, eta bizi-baldintzak hobetzea, migratzaile izan litezkeenei bitarteko ekonomikoak eta informazioa ematen dizkietelako migrazio-bidaiari ekiteko.

30. Garapen handiko herrialdeetaranzko immigrazioa haietako krisi demografikoaren ondorio da?

Aurreko epigrafean migrazio-prozesuei buruz deskribatutako ikuspegi mekanizistaren ondorioz, honako uste hau ere bultzatzen da: ugalkortasun txikiak eta zahartze demografikoaren prozesuak biztanle-defizit bat sortzen dute, etorkin-masak erakartzen dituen. Hala bada, ugaltze-tasa txikieneko herrialdeetan eta adin-egitura zahartuenak dituztenetan desoreka handiagoa gertatu beharko omen litzateke langile-eskariaren eta beren lan-merkatuak tokian-tokian jaiotako langile taldez hornitzeko dauzkaten ahalmenen artean. Hala ere, ebidentzia enpirikoak berriz ere erakusten du askoz konplexuagoak direla migrazio-dinamiken eragileak. Azterketek argi utzi dute ez dagoela korrelazio handirik jaiotza-tasa apalen eta migrazioak iristen diren intentsitatearen artean. Izan ere, oso jaiotza-tasa apalak dituzten herrialde batzuek etorkin gutxi har ditzakete edo, are gehiago, migrazio-balantzea negatiboa izan daiteke, azken hamarkadetan Erdialdeko eta Ekialdeko Europako herrialdeetan gertatu bezala. Bestalde, herrialde batzuek, Persiar Golkoko herrialdeek adibidez, ugaltze-tasa handiak eta adin-egitura gazteak izan arren, milioika

langile etorkin erakartzen dituzte, nahiz eta biztanleria-dinamikek, epe luzean, defizit demografikoa sortu ahal izan, eta horrek lan-merkatuetako langile-eskaria gero eta handiagoa izatea eragin. Faktore sozial, politiko eta ekonomiko batzuen araberakoa da aipatu premia horiek kanpoko langileen iritsiera masiboaren bidez betetzea: migrazio-politikak, bizi-kalitatea, ekonomien produkzio- eta sektore-egitura eta abar.

Castro Martín, Teresa., Rosero-Bixby, Luis (2011). Maternidades y fronteras. La fecundidad de las mujeres inmigrantes en España, *Revista Internacional de Sociología*, 69(M1), 105-138.

de la Fuente, Ángel (2022). España 1970-2070: Tendencias y proyecciones demográficas con un ojo puesto en las finanzas del sistema de pensiones, *Estudios sobre la Economía Española 2022/04* (martxoa), Madril: FEDEA.

Izquierdo Escribano, Antonio, López de Lera, Diego (koord.) (2007) *Demografía de los extranjeros: incidencia en el crecimiento de la población*, Madril: BBVA Fundazioa.

Ródenas Calatayud, Carmen (2019) ¿Puede la inmigración revertir el cambio demográfico? *ICE: Revista de Economía*, 2019.ko maiatza/ekaina, 908 zk.a, 81-98.

Lan-merkatua eta immigrazioa

Lorenzo Cachón

Soziologiako katedradun emeritua, Madrilgo Unibertsitate Konplutensea

31. Zerikusia du lan-merkatuak Espainia immigrazio-herrialde bihurtzarekin?

Aldez aurreko bi kontu gogorarazi behar dira. Lehenik, Espainia emigrazio-herrialdea izan ohi da. XX. mendean, sei milioi espainiar baino gehiago joan ziren atzerrira bizi-baldintzak hobetu nahian. Gehienak Latinoamerikara lehendabizi, eta gero Europako herrialdeetara: Alemaniara, Frantziara eta Belgikara, adibidez. Gerra zibilaren ondoren, askok arrazoi politikoengatik joan behar izan zuten. Baina gainerako kasuetan, Espainian lan-aukera gutxi izateak aldentzen zituen herrialdetik, lan bila.

Bigarrenik, gogorarazi behar da XX. mendeko 80ko urteen aurretik ere hasi zirela iristen Espainiara pertsona fluxu handiak: europarrak, eguzki bila (erretirodunak haietako asko), edo Espainian ezartzen ziren Europako enpresetan lan egitera; eta latinoamerikarrak, beren herrialdeetako diktaduretatik ihesean. Baina migratzaile horiek ez ziren etortzen Espainiako lan-merkatuak aukerak ematen zizkielako erakarrita.

Hori aldatu zen XX. mendeko 80ko urteetako erdialdera. Espainian hiru milioi langabe inguru zeuden, baina lan-nitxo batzuk agertzen hasi ziren, espainiar langileekin nekez betetzen zirenak. Almeriako plastiko azpiko nekazaritzalana da adibide horietako bat: lan neketsua zen (eta da), espainiar gutxi onartzen zutena, eta, orduan, plastiko horietan, batez ere langile marokorak agertu ziren. Etxe-zerbitzua da beste adibide bat: lan hori hirietan egiteko prest zeuden landa-eremuko emakumezko gazteak gutxi izaten hasi ziren, eta orduan hasi ziren emakumezko gazteak iristen Latinoamerikatik edo munduko beste alde batzuetatik. Hartara, Espainiako lan-merkatua, lehendabizikoz, etorkinak erakartzeko faktorea izaten hasi zen, eta Espainia immigrazio-herrialde ere bihurtu zen.

Urte haietan ez zegoen langile-defizitik (globalik); Espainian langileak ez ziren eskas, hiru milioi langabeei Europako herrialdeetan lan egiten zuten beste milioika espainol batzuk gehitu behar zitzaizkielako. Baina desoreka handiak zeuden lan-merkatuan. Desoreka horien arrazoia izan daiteke langileak leku batean bizitzea (Extremaduran, adibidez) eta enplegua beste batzuetan eskaintzea (Euskadin, adibidez), eta mugikortasun geografikoa txikia izatea. Batzuetan, langileek ez dituzten kualifikazioak eskatzen dira lanetan, eta horrek desorekak sortzen ditu. Edo langile askok onartzen ez dituzten ezaugarriak dituzte (gogortasun fisikoa, soldata apalak, ordutegi bereziak, prestigio txikia). 80ko urteen erdialdeko Espainian, oso desoreka nabarmena eta gero eta handiagoa zegoen langileek (zentzuz) espero zutenaren eta merkatuak eskaintzen zizkien lanpostuen artean.

Desoreka hori gertatzeko arrazoia izan zen langileek, demokrazia berrezarri zenetik, beren “desiragarritasun”-maila handitu izana; hau da, lorpen egokitzat jotzen zuten lan mota. Zenbait faktorek azaltzen dute desiragarritasun-maila handitu izana Espainian, urte haietan: bizi-baldintzak hobetzea eta ongizate-estatuaren garatzea; lan-merkatuan sartzen ziren pertsonen hezkuntza-maila handitzea; familia-sareek irautea; eta biztanle gehien-gehienek espektatibak areagotzea. Baina langileen desiragarritasun-maila handitzearekin batera ez zen gertatu lan-merkatuan eskaintzen ziren enpleguen baldintzen hobekuntza. Horregatik, desoreka handiak gertatzen hasi ziren jendeak lortzea espero zuenaren eta merkatuak eskaintzen zituen aukeren artean. Eta hori dela eta, enplegu horietako asko etorkin iritsi berriak betetzen hasi ziren eta Espainia immigrazio-herrialde bihurtu zen oso laster.

32. Nortzuk dira aktiboagoak, hau da, nortzuk sartzen dira neurri handiagoan lan-merkatuan, espainiarrak ala etorkinak?

Datuak argi adierazten dute: etorkinak. Biztanleria aktiboaren inkestaren arabera (BAI), estatistika-iturririk onena baita jakiteko zein den lan-merkatuaren errealitatea Espainian, 2022ko lehen hiruhilekoan 16 urtetik gorako 100 espainiarretik 56 zeuden lan-merkatuan, lanean edo lana bilatzen (horri esaten zaio "biztanleria aktiboa"); baina etorkinen artean, 100etik 70 ziren, hau da, espainiarrak baino 14 puntu gorago zeuden. Eta hori gizonen artean bezala emakumeen artean ere gertatzen da. Datuok oso sendo adierazten dute zertara datozen etorkinak Espainiara: lan egitera.

Egoera oso antzekoa da EAEn. 2022ko lehen hiruhilekoan, EAEn bizi ziren 16 urtetik gorako 100 biztanletik 56 lanean ari ziren, edo lan bila, eta EAEn bizi ziren atzerritarren artean, berriz, 100etik 67 ziren. Eta hori bera gertatzen da gizonen artean bezala, emakumeen artean ere, ondoko taulan ikusten den bezala.

Jarduera-tasa (hala esaten baitzaio lan-adierazle horri) handiagoen zati bat gertatzen da etorkinak espainolak baino gazteagoak direlako, bai eta jarduera-tasa handiagoak dituztelako ere adin-talde askotan.

Espainolen eta atzerritarren jarduera-tasak sexuaren arabera, Espainia osoan eta EAEn, 2022an.

Espainolen eta atzerritarren jarduera-tasak sexuaren arabera, Espainia osoan eta EAEn, 2022an

Espainia			
Jatorria	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Espainolak	56,3	61,2	60,4
Atzerritarrak	69,8	76,9	73,3
EAE			
Jatorria	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Espainolak	56,1	51,7	52,0
Atzerritarrak	67,3	63,2	61,5

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta

33. Zenbat etorkinek lan egiten dute Espainian, zer sektoretan eta zer kualifikazio dituzte?

2022ko lehen hiruhilekoan, 2.471.900 etorkin ari dira lanean; hau da, Espainian, 100 landunetik 12 baino gehiago atzerritarrak dira, 1,34 milioi gizonezkoak dira; 1,13 milioi, berriz, emakumezkoak.

Lau jarduera-sektoretan oso handia da etorkinen presentzia: etxe partikularretan (gehienak emakumek), nekazaritzan, ostalaritzan eta eraikuntzan. Lehenengoan, etorkinak landun guztien ehuneko 40 baino gehiago dira; nekazaritzan, ehuneko 30 inguru; ostalaritzan, ehuneko 23; eta eraikuntzan, sektoreko landun guztien ehuneko 16. Sektore horiek biltzen dute etorkin kopuru handiena, administrazio-jardueretan edo manufaktura-industrietan lan egiten dutenez gain.

Lau sektoreek zenbait ezaugarri komun dituzte. Nekazaritzan, ostalaritzan eta eraikuntzan kualifikazio-maila eta prestigio handiko enpleguak izan arren, enplegu gehienak (eta etorkinak horietan dihardute masiboki) neketsuak dira, lan-baldintza txarrekoak, eta, horregatik, lanpostu horiek ez dira oso “desiragarriak”. Horregatik, arrazoiz esaten da batzuetan etorkin askoren enpleguak “3P” lanpostuak direla: penagarriagoak, perilosagoak eta prekarioagoak direlako. Ziur horrek ez duela balio kasu guztietarako, baina bai haietako askotarako.

Etorkinek enplegu horietako asko onartzen dituzte, lan egiteko premia larria dutelako; bereziki, Espainian denbora gutxi daramatenek: behar dutena gastatzeko; jatorrizko herrialdeetako familiei diru pixka bat bidaltzeko; eta askotan, migrazio-bidaiarako egindako zorrak ordaintzeko. Eta, horregatik, ia aurkitzen duten lehen lana onartzen dute, askotan sektore horietan beretan lan egiten duten senideen, lagunen edo ezagunen sare sozialen bitartez. Esan daiteke etorkinek “negoziazio-ahalmen sozial” txikia dutelako onartu behar dituztela lan horiek.

Hartzen dituzte, baina ez sistematikoki dutelako espainiarrena baino askoz kualifikazio txikiagoa. Kualifikazioa langileek amaitutako ikasketen bidez neurtzen badugu, etorkinek, batez beste, espainolek baino bi ikasketa-urte gutxiago dituzte. Azken horiek, batez beste, 12,6 urtez ikasi dute, eta langile etorkinek, berriz, 10,7 urtez; emakumezkoek gizonetzkoek baino ikasketa-urte gehiago dituzte, espainolen artean bezala etorkinen artean ere. Baina ondoko taulan ageri den bezala, alde handiak daude jatorrizko eremuen arabera: adibidez, Erkidegoz besteko Europako etorkinek espainiarrek baino ikasketa-urte gehiago dituzte, eta munduko gainerako lekuetatik datozenek lau urte eta erdi gutxiagoko ikasketak dituzte. Eta horrek batezbesteko datuen berri baino ez digu ematen, bai etorkinen artean bai espainolen artean kualifikazio alde handiak daudelako.

Biztanle aktiboen ikasketa-urteen batezbesteko kopurua sexuaren eta jatorrizko eremuaren arabera (2022)

	Bi sexuak	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Guztira	12.3	11.9	12.7
Espainolak	12.6	12.2	13.1
Atzerritarrak guztira	10.7	10.4	11.1
Europar Batasuneko atzerritarrak	11.9	11.8	11.9
Gainerako Europako atzerritarrak	13.0	12.9	13.0
Latinoamerikako atzerritarrak	11.3	11.3	11.3
Gainerako munduko atzerritarrak	8.0	7.7	8.7

Iturria: geuk egina BAIko datuetan oinarrituta

Espainiara iritsi eta laneratzean, etorkin asko jatorrizko herrialdean zituzten hezkuntza-mailaren eta esperientzia okupazionalaren azpitik lan egiten hasten dira. Esan daiteke ezen gehienei, iristean, beheranzko mugikortasun okupazionala gertatzen zaiela, eta bigarren mailako merkatua esan ohi zaionaren barruko lanetan enplegatzen direla, soldata txarragoekin, egonkortasun txikiagoarekin eta igotzeko aukera gutxiagoekin. Soil-soilik urteen buruan (hamar bat urteren ondoren, ikerketa batzuen arabera) hasten dira etorkinak goranzko mugikortasun okupazionala izaten, baina, ia beti, bigarren mailako lan-merkatuko zereginetan. Hau da, hasieran askok beherantz egiten dute jatorrizko herrialdean zuten posizio okupazionalari dagokionez, eta ondoren, urteen buruan, pixka bat gainditzen dute jaitsiera okupazional hori.

34. Genero-alderik dago etorkinen artean lan-merkatuan?

Lan-merkatuak oso desberdin tratatzen ditu emakumezkoak eta gizonezkoak. Lan-merkatua bertan interakzioa duten hainbat erakundek (legeak edo ohiturak) eta hainbat eragilek (enpresariak, sindikatuak, langileak edo bezeroak) eragindako egintzen emaitza da. Eta lan-datuek ematen diguten emaitzak erakusten du emakumezko etorkinak sektore jakin batzuetan metatzen direla (etxerbitzua, ostalaritza), gizonezkoek baino soldata txikiagoak dituztela batez beste, eta langabezia-tasa handiagoak dauzkatela.

Baina egia da, halaber, emakume askok (bertakoak zein etorkinak izan) lortzen dutela lan-merkatuko egoera okerrago horietatik ateratzea. Horretarako arrazoi garrantzitsua da lan-merkatua iristen diren emakumeek, batez beste, gizonezkoek baino hezkuntza-maila handiagoa (eta hobea) dutela. Eta horregatik lortzen dituzte prestigio handiagoko posizio okupazionalak, batez ere zerbitzuetako azpisektore batzuetan.

35. Zergatik dute etorkin-talde batzuek autoenplegu-maila handia?

Autoenpleguak funtzionatzeko arrazoiak da, batzuetan, langileek, bertakoek bezala etorkinek ere, negozio txikiak (edo ez hain txikiak) abian jartzea erabakitzen dutela eta, bestetuetan, beren prestakuntzaren mailako soldatapeko lana ez aurkitzeak bultzatuta, ikusten dutela autoenplegua aukera bat dela berentzako eta familientzako bizibidea ateratzeko. Etorkinen artean bi egoerak aurki ditzakegu. Espainian (eta Europako beste herrialde batzuetan) bizi diren txinatarrena da autoenplegua oso zabalduetako dagoen oso kasu ezagun bat. Jatetxeetan, "dena ehunean" dendetan edo zapatak edo arropa saltzeko bestelako dendetan enplegunitxo bat aurkitu dute, Espainian bizi diren txinatarren ia erdiei lana ematen diena.

"Negozio etnikoetan" ere autoenplegu asko dago: jatorrizko herrialdeetako produktu tipikoak saltzen dizkiete etorkinei eta bertakoei.

36. Etorkinek espainiarrek baino mugikortasun geografiko handiagoa dute?

Bai, eta hori da etorkinek lan-merkatuan dituzten abantaila apurretako bat. Etorkin asko, bereziki Espainian denbora gutxien daramatenak, bakarrik daude sarritan eta, horregatik, erraz aldatzen dira lekuz, enplegu-aukerak edo daukaten lana hobetzeko egokiera aurkitu ahala. Batzuk Espainiako landa-inguru guztietatik igarotzen dira, nekazaritzako produktuen bilketan: olibak Jaénen, laranja Valentzian, marrubiak Huelvan, fruituak Lleidan eta abar. Baina, denborarekin batera, familian bizi direnean batez ere, lurraldean finkatzera jotzen dute.

37. Etorkinek enplegua kentzen diete espainiarrei?

Immigrazioaz eta lan-merkatuaz mintzatzean, hori da gehien errepikatzen diren mitoetako bat. Baina, orokorrean, esan daiteke etorkinek ez dietela enplegurik "kentzen" espainiarrei. Kasu batzuetan, etorkinak (jatorria Erkidegoan izan eta kualifikatuta daudenak) espainiarrekin lehiatzen dira, baina gehienek lan-baldintza okerragoak dituzten sektore batzuetan betetzen dituzte lanpostuak, eta, horrenbestez, haien enpleguak espainiarrenekin osatzen dira, azken horiek lan-baldintza hobek dituzten sektoreetara aldatzen baitira.

Atzerritarrek espainolei lanik "kentzen" ez dietelako frogak da atzerritarren enplegu handiagoak ez duela ekarri espainiarren langabezia handiagoa izatea. Badago hori maila agregatuan erakusten duen oso datu argi bat: 2008ko krisia lehertu zenean, Espainiak inoizko etorkin kopururik handiena zeukan eta, horrekin batera, espainiarren langabezia-tasa Espainiaren historia ekonomiko modernoko apalena zen.

38. Nortzuek jasaten dituzte neurri handiagoan langabezia-egoerak: etorkinek ala espainolek?

Etorkinek. Espainolek baino gehiago lan egin arren, egokitzen zaizkien langabezia-egoerak ere gehiago dira. Hori ez da kontraesankorra, neurri handiagoan sartzen direlako lan-merkatuan (hau da, aktiboagoak dira) eta, beraz, enplegu-tasa handiagoak (biztanleria osoarekiko) eta langabezia-tasa handiagoak (biztanle aktibo guztiekiko) izan ditzaketelako.

Adibidez, 2022ko lehen hiruhilekoan, atzerritar aktiboan ehuneko 21 langabezia zegoen, eta egoera horretan zegoen aktibo espainolen ehuneko 12; eta espainiarrekin gertatzen den bezala, langabezia-tasa handiagoa zen emakumezko etorkinen artean gizonezkoen artean baino, eta bereziki handia 16-24 urteko gazteen artean, bai espainolen eta atzerritarren artean, bai eta gizonezkoen eta emakumezkoen artean ere.

Espainolen eta atzerritarren langabezia-tasak sexuaren eta adin-taldean arabera, Espainian, 2022an

	Guzti- ra	16-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55 eta +
Bi sexuak						
Espainolak	12.2	30.3	15.1	9.3	9.9	11.0
Atzerritarrak	21.3	31.2	18.8	19.8	21.5	23.2
Gizonezkoak						
Espainolak	10.8	30.4	14.9	7.7	7.6	9.7
Atzerritarrak	18.9	31.0	17.9	15.5	18.5	21.6
Emakumezkoak						
Espainolak	13.7	30.2	15.3	11.2	12.4	12.4
Atzerritarrak	24.1	31.6	19.7	24.1	25.2	25.2

Iturria: geuk egina BAiko datuetan oinarrituta

39. Nola tratatzen dituzte etorkinak lan-merkatuan?

Etorkin askori bidezko trataera ematen zaie, eta bertako kideen lan-baldintza berak dituzte. Baina beste askok zuzeneko edo zeharkako diskriminazio-prozesuak jasaten dituzte. Diskriminazio hori, batzuetan, enpresaburuak edo enpresen kudeatzaileek eragindakoak izan daiteke, baina, beste kasu batzuetan, bezeroek edo beste langile batzuek eragindakoa da. Eta, horrenbestez, lan-baldintza txarragoak eta soldata apalagoak dituzte pareko espainolek baino. Zenbaitetan, esplotazioa basatia izateraino iritsi da, eta prentsak esklabotasun-egoerekin konparatu du batzuetan.

40. Zer gertatzen da lan-merkatuan ekonomia informalekin eta agiririk gabeko etorkinekin?

Ekonomia informala errealitate arazotsua zen Espainian etorkinak 80ko urteen amaieran iritsi baino lehen. Baina egia da "paperik gabeko" etorkinek, hau da, lan egiteko legezko baimenik ez dutenek egoera zailagoa eta askoz okerragoa dutela lan-merkatuan legezko egoeran dauden etorkinek baino. Eta ekonomia informala elikatzen duen iturri bat dira.

Konparatzen badira Espainian biztanle aktiboan gaineko inkestaren arabera 2022ko lehen hiruhilekoan landun ziren atzerritarrei buruzko datuak (2.471.900) eta hiruhileko horretako hiru hilen amaieran Gizarte Segurantzaren batez beste alta emanda zeuden afiliatu atzerritarrei buruzko datuak (2.260.086), kalkula daiteke 200.000 etorkin inguru Gizarte Segurantzaren alta eman gabe lan egiten ari zirela; hau da, Espainian lan egiten duten atzerritarren ehuneko 9 inguru Gizarte Segurantzaren alda eman gabe laneari ari dira, alta emanda egon beharko luketen arren.

Gizarte Segurantzarekiko egoera irregularrean dauden langile horien artean bi multzo berezi behar dira: alde batetik, agiririk gabeko langile atzerritarrak; ez dute

lan-baimenik eta, hortaz, ezin dira alta emanda egon Gizarte Segurantzaz; bestetik, Espainian legezko egoeran egonda ere, hau da, lan-baimena izan arren, enpresek altarik ematen ez dietenak lan egin bitartean (batzuetan Espainiako edo Erkidegoko langile batzuekin gertatzen den bezala). Biak ekonomia informaleko egoerak dira, baina lehen multzoko langileak, agirik ez izatearen ondorioz, bereziki zaugarriak dira, eta lan-merkatuan diskriminazioa eta abusuak jasateko posibilitate gehiago dituzte.

Cachón, Lorenzo, "La formación de la 'España inmigrante': mercado y ciudadanía", *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, nº 97, 2002ko urtarrila/martxo: 95-126.

Cachón, Lorenzo, "Inmigrantes y mercado de trabajo en España en la fase madura del ciclo migratorio", *Cuadernos de Mercado de Trabajo*, nº 8, 2012ko urtarrila: 42-51.

Ekonomia eta Gizarte Kontseilua, *La inmigración y el mercado de trabajo*, Madril, EGK, 2004.

Emakumeak eta immigrazioa

Sònia Parella Rubio

UABko Soziologia Saila. CER-Migracions UAB-UB

41. Zein dira generoaren eta migrazioen arteko loturak?

Dudarik gabe, generoa migrazioen elementu egituratzaile bat da. Susie Jolly-k eta Hazel Reeves-ek (2005) generoaren eta migrazioaren arteko noranzko biko loturak erakutsi dizkigute. Alde batetik, migrazioak eragina dauka genero-harremanetan, dela desberdinkeriak eta rol tradizionalak finkatuz, dela zalantzan jarriz eta eraldatuz. Bestetik, egileen arabera, generoak eragina du zehaztean nork migratzen duen, zergatik eta migratzeko erabakia hartzean, bai eta migrazioak migratzaileei eragiteko moduan ere, bai eremu igortzaileetan, bai eremu hartzaileetan. Generoak, hitz batez, ez die soilik heltzen gizonezko eta emakumezko migratzaileak izateko baldintzen arteko aldeei, baizik eta generoaren eraikuntza sozialaren eta aldeak egituratzen dituen osagai erlazionalaren azterketa ere biltzen du.

Askotan, migrazio-ikerketetan genero-ikuspegia sartzea arreta emakumezko migratzaileengan jartzearekin nahasten da. Genero-ikuspegia ez da emakumeengan zentratutako ikuspegia. Izan ere, genero-ikuspegirik gabe ezin da migrazio-kontuaz jabetu, prozesu sozial ororekin gertatzen den bezala, eta genero-ikuspegirik gabe migrazio-fenomenoaz ulertzen duguna ez-oso, partziala da. Egia da generoari eta migrazioei buruzko eztabaidak eta azterketak emakumezko migratzaileen esperientzietan zentratu ohi direla, baina horretarako arrazoa izan da emakumeak izan direla, talde moduan, genero-desberdintasunak gehien eragindakoak, bai eta ikusezin bihurtuenak (are estatistika-erregistroetan ere) eta, migrazio-ziklo osoan zehar, zaugarritasun handienaren mende egondakoak ere.

42. Zeri buruz ari gara “migrazioen feminizazioaz” ari garenean?

Duela urte batzuk arte, nahiko zabaldua zegoen migratzen dutenak nagusiki gizonak direlako ustea. Hala ere, sexuka banakatutako zenbatespen globalek berretsi dute mugak gurutzatuz migratzen duten emakumeen kopurua ia gizonena bera dela 1960. urtetik. Urte hartan, Migrazioetarako Nazioarteko Erakundearen datuen arabera, emakumezkoak ziren beren jatorrizko herrialdeetatik kanpo bizi ziren migratzaileen ehuneko 47 inguru. Ordudanik, nazioarteko migrazioaren emakumezko proportzioak gora egin du, oso poliki bada ere. MNEk munduko migrazioei buruzko 2022ko txostenean jasotako datuek erakusten dute %47,9 emakumeak zirela 2020. urtean.

Ikusten da ez dela funtsezko aldaketarik izan nazioartean, oro har, migratzen duten emakumeen ehunekoan, baina migrazio-ereduetan, bai, aldaketak izan dira. Azken hamarkadetan, emakumezkoen migrazio-proiektuen eredu-aldaketa gertatu da, “migrazioaren feminizazioa” esan zaiona. Terminoa nahasgarria izan daiteke, ikusi baitugu emakumeak, kopuru aldetik, migratzaileen ia erdiak direla duela hamarkada batzuetatik hona. Hala ere, aldaketa kualitatiboak izan dira migrazio-ereduetan, emakumeek sarriagotan migratzen dutelako beren kasa, bidea urratuz (eta ez familiak berriz elkartzeko prozesuen ondorioz), lan-sektore feminizatu jakin batzuetan lan bila, etxe-zerbitzuan adibidez, eta askotan etxeko buru izateko. Hortaz, gero eta emakume gehiago lekualdatzen dira migrazio-proiektu propio batekin (gizonarekin joan gabe), ezaugarri bereizgarriak dituztela, gizonezko migrazio-mugimenduek dituztenekin ezin pareka daitezkeenak. Jakina, migrazio-eredu femenino horren

nagusitasuna eskualdeen eta herrialdeen arabera aldatzen da.

43. Zergatik da funtsezkoa emakumezko migratzaileen egoerari genero-ikuspegi interseksional batetik heltzea?

Ikuspegi interseksionalak nagusiki generoari, klase sozialari eta arrazari lotutako hainbat botere-harremanen inbrikazioen berri ematen du, eta, horri esker, desberdinkerien esperientziei eta identitateei lotutako fenomeno sozialak modu integratuan eta testuinguru bakoitzeko ezaugarri bereziak kontuan hartuta uler daitezke. 80ko urteen amaieran, Kimberlé Crenshaw abokatu feministak interseksionalitate terminoa sortu zuen, adierazteko emakume afroamerikarrak politika feministetatik bezala arrazismoaren aurkakoetatik ere baztertua geratu direla, erantzun horietako batek ere ez duelako kontuan hartu arrazaren eta generoaren arteko interseksioa.

Interseksionalitatearen ikuspegia funtsezkoa bihurtu da generoaren eta migrazioen arteko loturaz teorizatu eta emakume eta migratzaile izatearen ondoriozko "desabantaila bikoitzak" nola eragiten duen azaldu nahi duten azterketetan. Tresna baliagarria da gurutzatzen diren desberdintasun-ardatzak ikusteko (adibidez, klasea, arraza, etnia, belaunaldia, erlijioa, sexualitatea, historia koloniala) eta, hartara, genero-harremanak eta emakumezko migratzaileengan duten eragina azaldu ahal izateko. Asko eta askotarikoak dira ardatz horien arteko interakzioak, gertatzen diren testuinguru sozialak desberdinak eta konplexuak direlako eta, askotan, migratzaileen kokapen/posizioaren alderdi transnazionalak markatuta daudelako. Ikuspegi hori lagungarria da ikusteko nolako jardun dinamikoa duten pertsonen (kasu honetan emakumezko migratzaileen) esperientziek eta jardunbideek eraturiko diskriminazio-sistemek eta, gainera, identitatearen askotariko alderdiak biltzea ahalbidetzen du.

44. Zer esaten digute mundu osoko emakumezko migrazioei buruzko datu nagusiek?

- MNEren (OIM) arabera, nazioartean emakumezko 135 milioi migratzaile zeuden 2020an, hau da, munduko emakume guztien %3,5.
- LNEren (OIT) datuen arabera, emakumezko migratzaileek lan-indarrean duten partaidetza-indizeak handiagoak dira migratzaile ez diren emakumezko homologoenak baino, nahiz eta herrialde askotan langabezia-tasa handiagoak izan eta kualifikazio apaleko enpleguetan baztertua egon.
- LNEren (OIT) datuen arabera, munduan etxeko sei langiletik ia bat nazioarteko migratzailea da; emakumeak nazioarteko migratzaile izanda etxeko langile diren emakumezko eta gizonezko guztien ehuneko 73,4 dira. Etxeko emakumezko langile migratzaile guztien %82 diru-sarrerara handiko herrialdeetan bizi dira.
- MNEren (OIM) datuen arabera, emakumeak Europara iristen diren migratzaile irregularren zati handi bat dira. 2018 eta 2020 artean, emakume izan ziren Europara lehorretik eta itsasotik ekialdeko, erdialdeko eta mendebaldeko Mediterraneoko bideak eta Mendebaldeko Afrikako bide atlantikoa erabiliz iritsitako ia 77.000 pertsonen %20.
- Emakumeak eta neskatoak zaurgarriagoak dira sexu-esplotaziorako, behartuta ezkontzeko eta etxe-neskametzarako salerosketaren ikuspuntutik, eta gizonek dute lan-esplotaziorako salerosketaren biktima izateko arriskua handiagoa.

45. Zein dira emakumeen migrazioen kausa nagusiak?

NBE EMAKUMEAK erakundearen datuen arabera, emakumeak munduko 244 milioi migratzaileen ia erdiak eta 19,6 milioi iheslarien erdiak dira. Emakumezko

migratzaileak askotan indarkeriazko egoeretan daude beren jatorrizko herrialdeetan, eta migratzeko erabakia hartzen dute, jakin arren igaro behar dituzten lekuetan posible dela sarri askotan genero-indarkeriako egoera latzak izatea, eta ez direla ezinbestean desagertzen helmugara iritsitakoan. Diru-sarrerak eta lan-aukera hobekak lortu nahi izatea migratzeko motibazio handia da emakumeentzat eta gizonentzat. Era berean, gizonen eta emakumeen arazo sozialei lotutako motibazioak partekatzen dituzte. Arazoak, besteak beste, hauek dira: natura-hondamendiak, indarkeria soziala (erasoak, estortsioak, hilketak), egongaitasun politikoa eta gatazkak, zeinen artean gatazka-adierazpide ez-tradizionalak direlakoetako asko baitaude, hala nola narkotrafikoaren aurkako gerra eta estatuen indarkeria estrukturala.

Aurrekoen gain, migratzeko beste motibazio batzuk daude, generoari eta patriarkatuari estu lotutako erresistentzia modukoak direnak; adibidez, genero-indarkeriako egoeretatik ihes egin beharra (orientazio sexual eta afektiboagatik; behartutako ezkontzagatik; mutilazio genitalagatik, indarkeriagatik eta etxeko indarkeria eta beste indarkeria mota batzuegatik), diru-sarrera handiagoak lortu beharra, etxeko buru-ardura hartu behar izateagatik; edo, bestela, kapitalismo globalaren indartze errukigabearen ondorioz, familiek irauteko moduen suntsipenagatik. Ahaztu gabe emakume askok migratzeko erabakia hartzen dutela berriz elkartzeko senarrekin eta/edo lehenago migratu duten familiarekin.

Era berean, oso kontuan hartzekoa da kanporatzeko faktoreak zuzenean lotuta daudela mendebaldeko gizarteek erakartzeko faktoreekin. Emakume migratzaileen kasurako, herrialde askotan zaintzen antolaketa sozialean gertatutako krisiaren ondorioz, zeinaren adierazpena zainketekin zerikusia duten ongizate-zerbitzu publikoak ahulak eta gutxiegi izatea den, bai eta mendekotasunarekiko arreta progresiboki desfamiliarizatzearen eta merkantilizatzearen ondorioz ere, langile-eskari bat sortzen ari

da, nagusiki emakume atzerritarrek betetzen ari direna. “Zaintzaren globalizazioa” esaten zaiona da.

46. Ezkutuan migratzen duten emakumeek indarkeria- eta babesgabetasun-arrisku handiagoa dute bidean?

Bai, argi eta garbi. Emakume izateak arriskua eta indarkeriaren adierazpideak areagotzen ditu iragaitzako bidean. Adibidez, Afrikatik (edo Ekialde Hurbiletik hasita) Europara doazen migrazio-bideei dagokienez, eta migrazio-legeak eta -politikak etengabe eta gero eta gehiago gogortzearen ondorioz, emakumeen gorputzen aurkako indarkeria larriagotzen da, sexu-esplotaziorako trafiko- eta salerosketa-sareak finkatzearen bidez, emakume askorentzat bide posible bakarra baitira Europaranzko bidaiak egiteko. Ertamerikako eta Mexikoko migratzaileek Estatu Batuetarantz erabiltzen dituzten bideak beste kasu enblematiko bat dira, arrisku askotarikoak eta larriak baitaude bidaietan, garraiobidea eta aukeratutako bidea edozein izanda ere. Azken urteetan inguru horretan krimen antolatua hedatzeak arriskuak handitu ditu eta, oro har, migratzaileen giza eskubideen urraketak larriagotu dira, bahiketen, salerosketaren, desagerpenen edo hilketen ondorioz. Gizonezkoek ez bezala, armen bidez mehatxatzen baitituzte, emakumeek indarkeria sexualari aurre egin behar diote, bai agintarienari, bai krimen antolatuko sareetako kideenari, bai trafikatzzaileenari, bai gizonezko migratzaileenari.

Nolanahi ere, egile askok ondorioztatzen dute ezkutuko migrazio-bidaietan jasandako indarkeria pieza bat baino ez dela emakumeek jada jatorrizko eremuetatik pairatzen dituzten indarkerien *continuum*ean, eta, hortaz, migrazio-aldia indarkeria-*continuum* baten zati bat baino ez litzateke izango, zeinean indarkeria-adierazpideak askotan isildu egin baitira, eta sinbolikoki barneratu bizi izandako esperientzia gogorrean.

47. Emakume migratzaileak helmugako gizarteetako zer lan-nitxotan metatzen dira gehienbat?

Lan-sektore feminizatueta langile-eskaria da migrazioak eta, bereziki, "migrazioen feminizazioa" delakoa sustatzen dituen garapen ekonomiko desparekoaren eragileetako bat. Saskia Sassen-ek (2003), ekonomia informaleko sektore jakin batzuetan lan egiteko "Hego/Ipar" fluxu feminizatuari buruz ari denean (gutxiago badira ere "Hego/Hego" fluxuak ere izan arren), "globalizazioaren kontrageografiak" direla esaten du, eta baliabide ekonomiko handiak sortzeko gauza direla, baina protagonistek inolako babesik izan gabe. Oso okupazio ikusezinak dira, dela etxeko esparru pribatuan betetzen direlako (etxe-zerbitzua), dela gune opaku eta legez kontrakoetan gauzatzen direlako, hala nola prostituzioa eta emakumeak sexu-esplotaziorako salerostea. Oso babes gutxioko lan-nitxoak dira, emakume horiek sumisio-, diskriminazio- eta indarkeria-egoera dramatikoetan jartzen dituztenak, horrelakoetan ez ikusiarena egiten duten merkatuen eta estatuen babespean, genero-joera nabarmeneko nazioarteko migrazio-eta babes-politiken eta -arauketen bidez.

48. Migrazio-politikek eta atzerriartasunari buruzko araudiak nola ekar ditzakete berekin eragin bereziak emakume migratzaileentzat?

Nazio-estatuak, beren politiken bidez, funtsezko eragileak dira pertsonen nazioarteko migrazio- eta mugikortasun-prozesuen gobernantzan. MNEk 2019ko migrazioaz egin glosategiaren arabera, migrazio-gobernantzak hauek biltzen ditu: arau juridikoen, legeen, erregelamenduen, politiken eta tradizioen esparru bateratuak, bai eta estatuak migrazioari haren adierazpide guztietan eta eskubideak eta betebeharrak kontuan hartuta erantzuteko nola jardun behar duten arautzeko eta zehazteko prozesu egokiak ere.

Esparru horiek eragin berezia dute generoaren arabera eta, beraz, ezinbestekoa da genero-ikuspegia sartzea migrazioen gobernantzaren agendan, estatu-mailan bezala mundu-mailan ere:

- Herrialde hartzaile askoren migrazio-politikek inplizituki asumitzen dute "mendekotasun"-estatusa emakumeentzat. Horren ondorio da emakumeei "familia-rola" atxikitzea, "merkatuko rola" atxiki beharrean, eta horrek herritar moduan dituzten eskubideak gutxitzen ditu.
- Arrazari, jaioterriari eta generoari lotutako hierarkiak garrantzitsuak dira helmugako herrialdeetan, eta eragina dute emakume eta gizon migratzaileak lan-merkatuan sartzean. Migrazio- eta lan-politikek zaintzaren gizarte-antolaketa bermatzen dute herrialde askotan, beste herrialde batzuetako emakume migratzaileak biltzeari esker, ardurua nagusia izan dezaten zaintzari lotutako zereginetan, esparru pribatuan lan eginez irteera profesional bakar moduan, eta sarritan egoera irregularrean egonda.
- Atzerriartasun-egoera juridikoak migratzaileen eskubideak zehazten ditu. Atzerriartasun-eskubideak agerian uzten du subjektuek eskubideak merezi dituztela lan-esparru publiko eta formalean egiten duten ekarpen produktiboaren arabera, zeina lan-kontratu bidez adierazten baita, eta nagusiki eredu maskulinoa baitu. Bizileku-baimenaren eta lan-baimenaren arteko loturak lan-merkatu arautua behar du, bat ez datorrena emakume migratzaile askoren errealitatearekin. Emakume gehienak biltzen diren sektoreak (etxe-zerbitzua eta lan sexuala) sasiaraututa edo, zuzenean, arautu gabe daude, eta horren ondorio da eskubide asko baztertea, sektore informalak direlako, eta oso lotura handia dutelako ezkutuko ekonomiarekin eta lan-esplotazioko egoerekin.
- Egoera bereziki zaurgarrian dauden emakumei dagokionez, sexu-esplotaziorako salerosketaren, migratzaileen trafikoaren eta indarkeria

matxistaren biktimei dagokienez, adibidez, estatuak askotan ez ditu behar beste babesten, eta arazo zehatzak dituzte eskubideak eskuratu eta babes-sistemetan sartzeko.

49. Zein dira emakume migratzaileei buruzko genero-estereotipo nagusiak?

Genero-estereotipoez mintzatzean, emakumea eta gizona rol sozial, enplegu mota edo ezaugarri fisiko edo psikologiko jakin batzuekin lotzen dituzten estereotipoez ari gara. Genero-estereotipoak migratzailearen etnizitatearekin, arrazarekin eta egoera juridikoarekin erlazionatzen dira, horiek dituzte elikabide, eta, horregatik, emakume migratzaileei buruzko irudi okerrak, homogeenak eta argi eta garbi kaltegarriak sortzen dira.

Emakume migratzaileei buruzko genero-estereotipo arrunten oinarrian, emakume horiei buruzko irudi jakin bat zabaltzea dago: otzanak dira, guztiz zaugarriak, ez dute eragiteko gaitasunik, eta sistematikoki agertzen dira indarkeriaren biktima moduan. Rol sexual tradizionalak eta emakumeak gizartean bete beharreko lekuari buruzko uste estereotipatuak eragina dute emakumezko langile migratzaileei kontratatzean ematen zaien ordaindutako lan motan. Era berean, salerosketari edo prostituzioari lotuta, neurritz gain eta areagotuta agerrarazten da emakume migratzailea biktima gisa. Gainera, haren irudi hipersexualizatuarekin zerikusia duen oro ere kontuan hartu behar da, hein handiagoan jartzen duelako indarkeria sexuala eta haren legitimazio soziala jasan behar izateko egoeretan.

Migrazio prozesuan aitzindari izandako emakumeei dagokienez, emakumeari ugalketa-lana eta seme-alaben zaintza bere gain hartzeko betebeharra esleitzen zaio, eta horrek izugarri lagundu du «migratzen duten» emakumeak estigmatizatzen. Emakumezko egile askok zenbait herrialdetan dokumentatu dute (besteak beste, Filipinetan, Bolivian eta Ekuadorren) emakume horiei «familia-etxea uztea» egozten zaiela, eta askotan aurre egin behar diotela «ama txar»

estigmari –diru-bidalketak egiteko gaitasuna izan arren–. Estereotipo moralki zehatzaile horien jatorrian, genero-harremanak birnegoziatzeko beharra dago, emakumeen migrazioak patriarkatuaren zutabeak zalantzan jartzen dituelako testuinguruan birnegoziatu ere. Gizonei dagokienez, ordea, migrazioak berekin aldatetako ekarri arren aitatasunaren esanahian eta erabileran, emigratioak, hain zuzen ere, sostengatzaile ekonomikoaren rola indartzen du, eta prestigio soziala ematen die.

Estereotipatzean, “Islam” eta “genero” arteko interakzioa begi-bistakoa da diskurtso islamofoboan, eta, hartara, hijab belo islamikoa eta beste sinbolo batzuk mendebaldeko gizartean integritate- eta tolerantzia-balioen aurkako mehatxu nagusi gisa agertzen dira, eta emakume musulmanen ekiteko ahalmena deuseztatzen dute. Alde horretatik, emakume musulmanak bestetasun esentzializatu bat irudikatzen du, estereotipatzearen aurka jartzen duena, eta “generoko islamofobia” esan ohi zaionean mamitzen dena, zeinean, alde batetik, Islama arbuizatzeko estereotipo orientalistak biltzen baitira, eta, bestetik, emakume musulmanak emakume zapaldu eta politikoki infantilizatu gisa agertzen baitira, eta Mendebaldeak askatu eta erreskatatuak izatea nahi badute.

50. Zer eginkizun betetzen du asoziazionismoak emakume migratzaileen artean?

Emakume migratzaileak kulturaren, politikaren, gizartearen edo feminismoaren esparruko erakundeetako kide aktiboak dira, eta erakunde horiek bai haiek ahalduzko prozesuan bai gizartean eta politikan eragina izaten laguntzen dute. Askotan, elkarrekin osorik feministak dira eta, beste batzuetan, gune misto moduan eratu dira. Ikerketek egiaztatu dute emakume migratzaileen elkarrekin gizonezkoen elkarrekin ez dituzten helburuak izaten dituztela, eta horren zergatia izan daiteke gizonek eta emakumeek helmugan dituzten posizio sozialean arteko aldeak eragina berezia duela, jatorrizko gizarteetan genero-sistemek berek dauzkaten ezaugarriak ahaztu gabe.

Alde horretatik, emakume migratzaileen elkarte askok soziabilitaterako eta identitate-adierazpenerako guneen balio komunitarioaren alde egiten dute, eta harreman- eta elkartasun-gune gutxi-asko informalak dira. Hala ere, beste ekimen batzuk funtsezkoak izan dira ongizatearen sustapena, ahalduntzea eta desberdinkerien aurkako borroka errebindikatzean, eta emakumeak eragile politiko eztabaidaezin bihurtu dituzte. Hori da, adibidez, etxe- eta zaintza-zerbitzuen sektoreko emakumezko langileen elkarteen kasua, zeinak Espainia osoan sortu baitira azken urteetan (batez ere Bartzelonan, Madrilen eta Euskadin). Elkarte gehienetan, kideak Latinoameriketatik etorritako emakume migratzaileak dira, eta kontzientziatzeko, ahalduntzeko eta lan-eskubideak errebindikatzeko ekintzak dituzte oinarritzko jarduera. Azken hamar urteetan, ezin ukatuzko errebindikazio-eginkizuna bete dute, Espainiak berrets dezan etxe-langileei buruzko Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANEren) 189. Hitzarmena, zeinak enplegatu-kolektibo horren lan-eskubideak zabaltzen baititu.

Jollie, S y Reeves, H. (2005). Género y migración: Informe general. BRIDGE: Institute of Development 2021/10/19an hartua hemendik: http://americ latinagenera.org/newsite/images/doc_237_brgeneroymigracion1.pdf

Parella, S. 2022. Migración forzada y enfoque de la seguridad humana desde una perspectiva de género. *Revista Diecisete*. Nº 6. zk. 39-50 DOI: 10.36852/2695-4427_2022_06.03 (testu honetatik atera dira 5., 6. eta 7. galderen erantzunen edukiak)

Sassen, S. (2003) *Contra geografías de la globalización. Género y ciudadanía en los circuitos transfronterizos*. Madrid: Traficantes de sueños.

Etorkinen seme-alabak Espainian

Silvia Carrasco

EMIGRA-CER Migracions, Departament d'Antropologia Social i Cultural, Universitat Autònoma de Barcelona

51. Zer nazionalitate dute etorkimen seme-alabek?

Etorkinen seme-alaben gizarteratzeaz pentsatzean, hutsegite ohikoenetako bat da uste izatea erabateko herritartasunak ematen dituen eskubide guztiak dituztela Espainian jaio badira. Hala ere, hori ez da hala, gure herrialdean odol-eskubidea (*ius sanguinis*) aplikatzen delako, eta ez lur-eskubidea (*ius solis*), automatikoki onartzeko jaioberri baten nazionalitatea. Hau da, Espainian jaiotako pertsona batek, ama eta aita atzerritar nazionalitatekoak baditu, gurasoen atzerritar nazionalitatea du, edo horiek, halakorik ez badute, erabakitzen dutena. Bi sistemek, besteak beste Frantzian eta AEBn aplikatzen dutenak (*ius solis*) eta Espainian aplikatzen denak (*ius sanguinis*), abantailak eta mugak dituzte.

Espainiar nazionalitatea lortzeko, eskatu beharra dago, edo gurasoek eska dezakete seme edo alabarentzat, eta nahiz eta beti aurkeztu behar den herrialdean "sustraitzea" esaten zaionari buruzko dokumentazioa, adibidez Espainian eskolatu izana, hemen jaiotzea ere abantailatzat jotzen da hura lortzeko, hemen jaio ez direnen aldean. Ius solis irizpidea aplikatzen ez duten herrialde batzuetan, nazionalitatea lortu nahi bada, are izapide zailagoak eta larrigarriagoak egin behar dira, lurralde nazionallean jaio ezean. Gainera, kontuan hartu beharreko behin eta berrizko arazo bat da nazionalitatea lortzeko baldintzen ebaluazioa laxoagoa edo gogorragoa izan daitekeela, immigrazioari buruzko jarrera nagusia zein den. Adibidez, atzeraldi ekonomikoetan eta/edo immigrazioaren aurkako politikak egon direnean, zeinak, errealitatean, eskulan-poltsa prekarizatu eta esplotagarria izatean oinarritzen baitira, eskubide gutxiagorekin, ez

ziren onartu espainiar nazionalitatea lortua zuten gazte askoren anai-arrebek egindako eskaerak, eta familiek irregulartasun-egoera larriak jasan behar izan zituzten, gurasoek lan-eta bizileku-baimenak galtzearen ondorioz.

52. Zergatik jarraitzen da hitz egiten "etorkinen seme-alabek" edo "bigarren belaunaldiko etorkinez"?

Fenomeno bati buruzko ezagutza sortzeko, immigrazioaz kasu honetan, erabiltzen diren terminoek eta kontzeptuek argi zehaztu behar dituzte fenomenoak eta lotutako faktoreak. Kontzeptu hauen kasuan, eztabaida bat dago, zerkusirik ez duena ikerketarekin, aktibismoarekin baizik, eta seinalatzeko eta bereizteko estigma moduan erabiltzen direla dioena. Inola ere ez. Izan ere, kontua da erakustea migrazioen ondorengo diren biztanleek aurre egin behar dieten desberdinkeriazko egoerak, oztopo espezifikoak baitituzte eskubide osoz gizarteratzeko prozesuan, baina horiek ez dira desagertzen sortzen dituzten baldintza espezifikoak izendatzen ez badira. Zehazki, ikerketa-literaturak, AEBko akademiaren eraginpean, *children of immigrants* edo *second generation*ekoak aipatzen ditu AEBn jaiotako etorkinen seme-alabek aritzean; hortaz, AEBko herritarrek dira, baina immigrazioarekin zerkusia duten mota guztietako desberdinkeria espezifikoaren eraginpean jarraitzen dute. Halakorik gertatzen ez denean ere *immigrant children and youth* esaten dituzte.

Europar eta, zehazki, Espainiar eta bere legeak dituen herrialde bakoitzean,

ezinbestekoa da argitzea nori buruz mintzatzen den, aipagai diren problematikak ulertzeko. Adibidez, belaunaldiak aipatzea baliagarria izan daiteke kasu batzuetan: lehen etapetatik Espainiako hezkuntza-sisteman eskolatuak izan arren, etorkinen semeak eta alabak neurritz gain ordezkaturik daude derrigorrezko bigarren hezkuntzan ez graduatzeari eta eskola uzteari buruzko adierazleetan, Espainian jaiok izan zein ez. Baina ez da hala gertatzen kasu guztietan? Erantzuna ezezkoa da. Familia-kapital akademikoaz, distantzia linguistikoaz, izandako edo ez izandako eskola-esperientziak eta beste zenbait faktorez gain, aldeak daude bigarren belaunaldia deritzonaren eta 1,5 belaunaldia (Espainian jaiok gabe, lehen haurtzaroen iritsi izana) deritzonaren eta gainerakoen artean. Beste zenbait esparrutan, adibidez diskriminazioa, aurreiritziak eta arrazakeria jasateko posibilitate handiena dutenez aritzean, askotan *children and youth with an immigrant background* aipatzen dugu: atzerritar/etorkin-jatorriko haurrak eta gazteak, oro har.

53. Zer oztopo espezifiko izaten dituzte etorkinen seme-alabek bete-betean sentitzeko Espainiako gizartearen parte direla?

Etorkinen seme-alabak oztopo espezifikoak dituzte, eragina izan dezaketena gizarteratzeko eta Espainiako gizarteko kide izateko loturak garatzeko baldintzetan. Espainia Haurren Eskubideei buruzko Nazioarteko Hitzarmena (1989) sinatu zuen herrialdea denez, konpondu gabeko kontraesan bat dago, etorkinen seme-alabei eta bakarrik migratzen duten adingabeei eragiten diena. Hitzarmenak adingabe guztien eskubideak parekatzen ditu, nazionalak eta atzerritarrak batere bereizi gabe, baina babes hori adin-nagusitasunarekin amaitzen da, eta legedi nazionalak, egitez, zerbitzu eta baliabideetarako sarbide-berdintasuna ez bada ere, haiek baliatzeko ekitatea murrizten dute.

Estatuan, autonomietan eta tokian-tokian ezartzen diren integrazio-politika zehatzek integrazteko baldintzak bidera edo traba ditzakete, premia espezifikoei erantzun ezean. Adibidez, laguntza linguistikoari, curriculum-desoreka gertatuz gero errefortzuari, curriculumekoak ez diren jardueretan parte hartzeari, familia-laguntzari eta abarri dagokienez. Badago 16-18 urteko adin-tarteari behin eta berriz eragiten dion egoera bat: hezkuntza-eskubidea bermatzen da, baina beti daude arazoak praktikak enpresetan egiteko aukerari lotuta, aplikatzen den legediak lan-esparruari dagokiolako, eta ez dutelako horretarako baimenik.

Arazakeriak eta diskriminazioak atzerritar jatorriko gazteei eragiten diete lanean, etxebizitzan, hezkuntza-sistematik itxaropen gutxi izatean eta gizartean parte hartzeko esparru askotan, klasearen eta sexuaren ondoriozko desberdinkeriazko faktore estrukturalen eragin espezifikoaz gain; izan ere, haiek behin eta berriz jasateko identitatean atzera egiteko prozesu erreaktibo kezagarriak eragin ditzake. Zenbait jatorritako familia etorkinetako alabei etengabe urratzen zaizkie herritar gisa dituzten eskubideak, berdintasun-politikak gorabehera, ez bakarrik talde edo erlijio batekoak izateagatik, bai eta askotan mugatzen dituen komunitate barruko kontrolagatik ere.

54. Zer zailtasun eta abantaila dituzte jatorri desberdinetako etorkinen seme-alabek?

Dudarik gabe, atzerritar jatorriko haurrak eta gazteak ezin dira talde homogeneotzat hartu, haiei buruzko pertzepzioak gizarte hartzailearen ezaugarrien eta toki-testuinguruaren arabera ere izan arren. Lege-egoera asko eta askotarikoak daude herrialdeen arteko alde biko hitzarmenen ondorioz, bereziki Espainiaren eta kolonia izan zituen lurraldeen arteko ondorioz. Espainiera partekatzea, bai eta beste ezaugarri kultural batzuk partekatzea ere, hala nola erlijio-oinarria eta nolabaiteko gazte-kontsumo kultural komun baten gero

eta garrantzi handiagoa, dudarik gabe, abantaila bat da beste jatorri batzuekin alderatuta. Baina abantaila eta desabantaila handiagoek egoera ekonomikoarekin eta familien migrazio-proiektuei lotutako xede eta kargekin dute zerikusia.

Gainera, kontuan hartu behar da herrialdeen artean harreman-historia izateak aurreiritziz betetzen dituela ezartzen diren harremanak eta pertzepzioak, eta muga ikusezinak sortzen dituela, bai eta immigrazioaren seme-alabek esparru askotan izaten dituzten ezkutuko oztupoak ere. Oro har, akademia bera gehiago zentratu da gizarte hartzaileko erakunde politikoek eta iritzi publikoak problematika moduan hautemandako kontuen ikerketan, oro har etorkinek eta, bereziki, atzerritar jatorriko gazteek eta haurrek izandako zailtasunetan baino. Esate baterako, banda latinoez, emakumeen mutilazio genitalaz edo identitate kulturalaz gehiago dakigu arrazakeriaz eta diskriminazioaz baino, pobrezia-maila handiagoez baino, pobrezia larriari buruzko zenbatekoak oso handiak izan arren 2008ko krisiaren aurretik ere, edo egoera pandemikoak immigrazioaren seme-alabengan izandako eragin espezifikoz baino

55. Balio du eskolak etorkinen seme-alabak gizarteratzea bermatzeko?

Etorkinen seme-alabak 90eko urteen erdialdean kopurua handian iristen hasi zirenetik eta, batez ere, familiak berrelkartzeari buruzko lehen dekretuaz geroztik (1994), esan izan da hezkuntza dela gizarte-integrazioaren giltzarria. Hala ere, Espainian migrazioez eta hezkuntzaz egindako ikerketak adierazi du hezkuntza-sistema eta irakasleak ez daudela prestatuta, ordudunik kasu bakoitzean egindako erreformatan, zertarako eta, behar bezala erantzuteko nazioarteko immigrazioaren seme-alaben hizkuntza-, curriculum-, gizarte- eta ekonomia-premiei erantzuteko.

Eskolara joateak ez du inondik ere bermatzen gizarte-integrazioa. Horren froga agerikoena

da Espainia Europako buruan dagoela ez bakarrik hezkuntza eta prestakuntza goiz uztearen indizean, Maltaren atzetik baino ez, bai eta, jaiotzako/nazionalitateko, 18-24 urteko gazteen arteko polarizazio-maila handiengan ere. Derrigorrezkoaren ondoko prestakuntzarik ez izateari dagokionez, atzerritar jatorriko gazteen ehuneko hiru aldiz (nesken kasuan) eta lau aldiz (mutilen kasuan) da handiagoa espainiar jatorriko edo nazionalitatekoena baino. Familia etorkinetako ikasleen %80 ikastetxe publikoetan eskolatzen da, baina horietan baliabideak %40 baino gehiago gutxitu dira, Alderdi Popularrak eta, autonomia-erkidego gehienetan, alderdi nazionalista kontserbadoreek egindako krisiaren kudeaketa zorrotzean ezarri murrizketen ondorioz.

“Integrazioaren inperatiboaz” eta globalizazioko migrazioen ondoriozko trantsizio demografikoaz aritzean, Richard Albak (2013) honako hau dio: “... trantsizio honek irismen handiko ondorioak izango ditu. Mendebaldeko gizartearen etorkizunean, ekonomiaren, kulturaren eta gizartearen ikuspegitik, erabakigarria izango da bertan jaiotako zahartuak ordezkatzeko dituzten etorkin-jatorriko gazteak ondo prestatzea”. (R. Alba eta J. Holdaway, ed. *The Children of Immigrants at School. A Comparative Look at Integration in the United States and Western Europe*. NY University Press, 276. or.).

56. Egia da etorkinen seme-alaben presentziak ikastetxe baten hezkuntza-maila okertzen duela?

Argi eta garbi esan behar da ez dela egia etorkinen seme-alaben presentziak ikastetxe baten hezkuntza-maila okertzen duela. Atzerritarra edo etorkinen seme-alaba izatea ez da berez zailtasun edo hezkuntza-premia bat. Ikastetxe batzuetan emaitzak beste batzuetan baino hobeak izateko, erabakigarria da behar adina baliabide egoki izatea edo ez izatea ikasleen premiei erantzuteko, haien jatorria edozein izanda ere. Lehenago esan bezala, atzerritar jatorriko ikasle gehienak dauden ikastetxeak baliabide gutxiagokoak dira, murrizketak izan dituzte

eta, horregatik, hizkuntza-laguntza eta eskola-errefortzurako atal gehienak desagertu dira, bai eta horietan aritzen ziren irakasle espezializatuak ere, 2010-2011 ikasturtetik, eta ez dira berreskuratu. Funtsezko beste kontu bat izan da murrizketek eragina izan dutela irakasleen prestakuntza iraunkorrean eta ikastetxeetarako laguntzetan; adibidez, Hezkuntza Ministerioaren PROA programaren bitartez. Autonomia-erkidegoetan babes- eta laguntza-programa asko ere desagertu dira. Espainiako hezkuntza-sistemak, atzerritar ikasleen presentzia hogei urtean baino gehiagoan handitu arren, ez du lortu ikastetxe-proiektu inklusibo, eleanitz eta kulturartekoak garatzea ikuspegi global eta komunitario batekin eta ondo trebatutako irakasleekin, ez zegoelako horretarako prestatuta.

57. Etorkinen seme-alabek zer faktoreren ondorioz lortzen dituzte emaitza akademiko txarragoak eta baztertzen dituzte lehenago ikasketak? Hala da kasu guztietan?

Hainbat faktorek azaltzen dute zergatik lortzen dituzten emaitza akademiko txarragoak etorkinen seme-alabek jatorri nazionalako ikasleek baino proportzio handiagoan. Baina kontuan hartu behar da ezen, errenta apaleneko espainiar jatorriko ikasleen emaitzei eta atzerritar jatorrikoenei erreparatuta, aldeak ez direla hain handiak. Hau da, lehenik, klase-faktore bat dago, familiek baliabide akademiko gutxiago dituzte eta, jeneralean, ikastetxe publikoak ez daude behar bezain ongi hornituta gabezia horiek konpentsatzeko. Bigarrenik, eta esan dugun bezala, errenta txikieneko atzerritar ikasleak, hots, gehienak, beren eskola-denboraren zati batean behar duten laguntza espezifikoaren murrizketek eragindako ikastetxeetan daude.

Hirugarrenik, ikerketak ere esaten du eskola-segregazioa eta ikastetxeen zuzkiduretan eta proiektuetan dauden aldeak ere erabakigarriak direla. Baina mailakako barne-segregazioa ere badago, eta ikasle kopuru mugatu baten alde jokutzen du. Laugarrenik, irakasleen arteko proportzio handi batean

defizitaren ikuspegia eta itxaropen txikia zabaldua daude errenta apaleneko atzerritar ikasleek eskola-arrakasta lortzeko aukerei buruz eta, era berean, eskola-uzte goiztiarraren nolabaiteko naturalizazioa da horren ondorioa.

Guztiarekin ere, eta bide arrakastatsua egitea eragozten dieten eskola- eta gizarte-oztopoak handiagoak izan arren, oso garrantzitsua da kontuan hartzea atzerritar jatorriko ikasleek hezkuntza-helburu handiak dituztela, eta "etorkinen baikortasuna" deritzonaren ezaugarri argiak gordetzen dituztela, derrigortasunaren ondoko iraunkortasun handiagoarekin kideko nazionalak baino, DBHko graduatua lortutakoan. Arrakasta-faktoreak argiak dira: eskola-laguntza egoki eta jarraitua, laguntza ekonomikoa derrigorrezko hezkuntzaren ondoren, eta familientzako orientazioa eta laguntza, gutxiago ezagutzen baitute hezkuntza-sistema.

58. Nola susta daitezke Espainian etorkinen seme-alaben gizarte-integrazioa eta jatorri desberdinak dituzten belaunaldi berrien arteko elkarbizitza?

Azken hamarkadetan, aukera izan dugu ikusteko zer ahulgune dituzten gizarte-integratzaileak ereduak immigrazio-tradizio luzeko herrialdeetan, bai eta zer ñabardura (gutxi-asko multikulturalistak edo asimilazionistak) dituzten ere, eta bertatik aztertu ditugu gure herrialdeko integratzaile-politiken hauskortasuna eta atzera egiteko arriskuak. Adibidez, 2008ko krisi ekonomikoarekin, zeinaren kasuan pandemiak eten baitzuen susperraldi hasi berria, mundu geopolitiko global batean bizi garela ahaztu gabe. Leku guztietan daude egonezinak eta arriskuak, eta oso gertaera kezkarriak izan dira, gogorarazten digutenak gizarte-integratzaile prozesu luze eta konplexua dela, benetako esperientziaren mende dagoela, elkarbizitza-helburu abstraktuetara jotzen duten diskurtsoetatik haratago.

Gizarte-integrazioa eskubideetan, baliabideetan eta parte-hartze sozialean oinarritzen da. Ezin batera daiteke herritarren eskubide-desberdinkeriarekin eta Espainiako gazteen artean beste geruzatze etniko-sozial bat gertatzeko joerarekin. Etorkinen seme-alaben proportzio handi batek prestakuntza txikiagoa dauka, kualifikazio txikiagoko enpleguak ditu, arazoak ditu behin eta berriro etxebizitza eskuratzeko eta, beste maila batzuetan, egunero ditu arrazakeria-, diskriminazio-esperientzia espezifikokoak, kide ez izateari lotutakoak. Premiazkoa da ondoriozko gizarte-zatiketa alderantzikatzea, identitatara eta komunitatera biltzeko joerak eta neurri bakar batekin neurtzen ez delako ustea saihestea.

Integrazio-politikek Espainiako gizartea eraldatzearen alde egin behar dute, egungo errealitatetik abiatuta, nor zer garen, gure gazteak nolakoak diren eta jatorriak askotarikoak direla kontuan hartuta, baina, batez ere, kultura politika komuna parte-hartze sozialean oinarrituta finkatzeko lan egin behar dute. Eta, horregatik, funtsezkoa da arreta jartzea eskolan arlo akademikotik harago ere gertatzen diren kontuetan, jatorri guztietako haurrek eta nerabeek partekatzen duten nahitaezko kontaktu-esperientzia bakarra delako, eta gizarte-integrazioarako oinarri sendoak eraikitzeak aukera handiena.

59. Zein da bakarrik migratzen duten adingabeen problematika? Nola egin dakioke aurre?

Adingabe askok bakarrik migratzen dute, familia-estrategien barruan edo proiektu propioarekin, eta askotariko profilak dituzte, baina betiere ere atzean desparekotasuna eta aukerarik eza daude. Horien drama Espainiako harrera- edo igarotze-testuinguruan izan ohi dituzten arazoekin larritzen da. 2015etik iritsitako kopuruak gora egin zuen, eta argi geratu zen zer desoreka dauden beharren, baliabideen eta kudeaketa-ereduen artean. Lehen arazoa autonomia-erkidegoen arteko koordinaziorik eza da, eragozten baitu modu fidagarrian jakitea zein den artatutako adingabeen

kopurua, jarraipen egokia egitea eta adingabeen beren barne-mugikortasunaren berri ikastea.

Gainera, ez dira bat etortzen, alde batetik, adingabeak, halakoak diren neurrian, babesteko nazioarteko politikak, zeinak gizarte-zerbitzu autonomikoei baitagozkie, eta, bestetik, Atzerriartasun Legeak ezarritako legezko estatu-esparrua, zeinaren bidez heldu irregular bihurtzen baitira adin-nagusitasunarekin, trantsizioan eta gizarteratzen laguntzeko neurri argirik gabe. Neurri batean, desoreka hori aldi baterako bizilekua baimentzeko 2020ko jarraibide baten bidez konpondu da, bai eta (aberriratzeko ezintasuna egiaztatu ondoren) 16 urtetik aurrera bizilekua eta lana izateari buruzko 2021eko urriko Errege Dekretuaren bidez ere; izan ere, 2022ko lehen hiruhilekoan 9.000 heldugabe baino gehiagok heldu diote lege-aldaketa horri.

Hala ere, aurreikuspenik eza eta kolapsoa oraindik indarrean daude eta, arazo horiei lotuta, harreraren kalitatea txikia da, eta prestakuntzarako sarbidea desparekoa, jasaten dituzten etsaitasuna eta aurreiritziak ahaztu gabe. Gainera, bakardadea eta babesgabezia daude, eta horrek guztiak mafiekiko eta adikzioekiko zaurgarritasuna handitzen du.

Hala ere, emakumezko adingabeen problematika espezifikoaren ikusezintasuna da kezagarriena, ez dagoelako neskarik fluxu horietan imajinarioaren arabera, eta, ondorioz, salerosketa- eta prostituzio-sareekiko zaurgarriagoak direlako. Askotan, haien arrastoa eta erreskatatzeko aukera galtzen dira.

60. Zer gertatzen da berdintasun-politiken eta bestelakotasun kulturalaren kudeaketaren arteko kontraesanekin, neskatuen eta nesken eskubideei dagokienez?

Immigrazioaren seme-alabek Espainiako gizartean izandako esperientziez eta egindako bideez nahiz gizartera daitezen bete beharreko baldintzez ikertzen 25 urtetik

gora eman ondoren, zalantza ikusten dugu badirudiela halako isiltasun-itun bat dagoela familia etorkinen neskatoen eta nesken kasuan. Alde batetik, haien esperientziak etorkinen ondorengo guztien parean jartzen dira bereizketarik egin gabe, jakintzat emanda faktore berek eragiten dietela. Bestetik, giza eskubideen eta Espainiako lege-esparruaren ikuspegitik oso problematikoak diren eta sexuagatik eragiten dizkieten fenomeno batzuek baino ez dute interes espezifikorik biltzen, hala nola mutilazio genitalaren arriskuak eta behartutako ezkontzek. Izan ere, agintariak ez dira gai horietan sartzen, eta erabaki dute ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek esku uztea kolektibo etorkinei eragiten dieten sexismoaren eta matxismoaren ondoriozko gatazkak ebazteko ardura.

Hala ere, oso ondo dakigu agintariak eta gizarte-zerbitzuek bezala, ikerketa akademikoak ere kontua ez dela horrela. Atzerritar jatorriko neskek, adibidez, mutilek baino emaitza akademiko hobekiak lortzen dituzte eta hezkuntza-jarraitutasun handiagoa dute, baina askok oraindik ere gogoz kontra uzten dute eskola, eta beren inguruneetan gertatzen den atzera-biltze identitarioaren lehen biktimak dira.

Jatorri guztietako familia etorkinetan, neskatoek eta neskek hainbat modutan eta neurritan gertatzen den diskriminazio bikoitza jasaten dute, baina inork ez dio heldu nahi, arrazakeriaren aurkako aktibismoaren agendak gure legeek ezarritako berdintasunaren agendaren gainetik pasatzen delako. Premiazkoa da agerian uztea nola urratzen diren egunero Espainian etorkin-jatorriko neskatoen eta nesken eskubide indibidualak, indar aurrerakoien oniritziarekin eta gaur egun politika identitarioen alde duten jarrerarekin. Hartara, neskek eta neskatoek arrazakeria bikoitza jasaten dute.

Aparicio, R.; Portes, A. (2014). *Creecer en España. La integración de los hijos de inmigrantes*. Bartzelona: La Caixa Gizarte Ekintza.

Carrasco, S.; Pàmies, J.; Narciso, L. (2018). Abandono Escolar Prematuro y alumnado de origen extranjero en España: ¿un problema invisible? Hemen: Arango, J., Mahía, R., Moya, D. eta Sánchez Montijano, E. (zuz.) *Anuario CIDOB de la inmigración 2018*. Bartzelona: CIDOB, 211-236. Migrazioei buruzko artikulu onenarentzako La Caixa-ren Observatorio Saria, 2019. https://www.cidob.org/es/articulos/anuario_cidob_de_la_inmigracion/2018/abandono_escolar_prematuro_y_alumnado_de_origen_extranjero_en_espana_un_problema_invisible

García Castaño, F.J.; Rubio Gómez, M. (2018). Las trampas de la diversidad. Sobre la producción de diferencias en la escuela, *Gazeta de Antropología*, 34 (1). <http://www.gazeta-antropologia.es/?p=5044>

García de Cortázar, A.; Gimeno Monterde, C., eds. (2018). *Las migraciones de jóvenes y adolescentes no acompañados. Una mirada internacional*. Granadako Unibertsitatea.

Integrazio-politika: osasuna, gizarte-zerbitzuak eta bestelako prestazioak

Rubén Lasheras

Irakasle ikertzailea. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Nafarroako Unibertsitate Publikoa

61. Osasuntsuagoak al dira migratzen duten pertsonak?

Pertsona migratzaileen osasunari buruzko irudikapen bat dago, *etorkin osasuntsuaren efektua* deritzona. Hainbat azterlanetan aipatu izan da etorkinek bertako biztanle hartzaileek baino osasun-egoera hobea dutela. Egitate hori hainbat ikuspuntutatik justifikatzen da. Adibidez, leku batetik bestera joateko pertsona egokienak hautatzeko prozesua aipatzen denean edo joan-etorrien protagonistak, askotan, jokabide osasungarrienak dituzten pertsonak izaten direla adierazten denean.

Idea hori jarraibide orokor gisa mantendu den arren, ikerketa batzuek adierazten dute urteen poderioz *etorkin osasuntsuaren efektua* desagertzen denean, hainbat arrazoi medio, atzerriko etorkinen osasun-egoerak okerrera egiten duela.

Alde batetik, desberdintasun sozioekonomikoen (lan-baldintza eskasak, pobrezia, diskriminazioa, etab.) eraginaren ondorioz bizi-ohituretan aldaketak gertatzen direnean, bereziki etorkinei eragiten dietenak eta osasun fisikoko (mina, ondoeza, etab.) eta mentaleko (antsietatea, depresioa, etab.) arazo bihurtzen direnak. Dena den, herrialde aberatsetako etorkinen kasuan bertako biztanleen artean baino osasun-adierazle okerragoak ez daudela ere adierazi behar da.

Azken batean, eta kolektiboaren heterogeneotasuna ahaztu gabe (jatorria, sexua, klase soziala, egonaldia, etab.), etorkin etorri berrien osasun-egoera bertakoena baino hobea izan ohi da, baina bizi-baldintza okerragoen ondorioz hondatzen da. Gainera, eragin hori ondorengoengan nabaritzen da, immigrazio-aurrekaririk ez duen biztanleriak baino osasun-egoera okerragoa duelak.

62. Etorkinek osasun-zerbitzuak kolapsatzen al dituzte?

Etorkinekiko arbuioa maiz gertatzen da osasun-baliabideak neurritz kanpo erabiltzeagatik. Erabilera desegoki hori zenbait portaerarekin lotzen da, esaterako, maizegi joatea, justifikatutako arrazoirik gabe joatea, etab.

Lehenik eta behin, ezin da inola ere abusuz hitz egin osasun-zerbitzuak eskubidetzat hartzen direnean. Legeiaren arabera, erroldatuta dauden etorkin atzerritarrek (eta adingabeen eta haurdunen kasuan erroldatuta ez badaude ere) osasun-laguntza publikoa jasotzeko eskubidea dute, gainerako biztanleen baldintza beretan. Erroldatuta ez badaude, eritasun larriagatik edo istripuagatik larrialdiko laguntza publikoa jasotzeko eskubidea dute, edozein dela ere haren kausa, eta medikuak alta eman arteko bermearekin.

Bigarrenik, azterlan ugari frogatzen dute, oro har (zerbitzuaren arabera ñabardurekin: oinarritzko arreta, arreta espezializatua, etab.), etorkin atzerritarrek gutxiago erabiltzen dituztela osasun-baliabideak bertako biztanleek baino. Hala ere, hori arriskutsua da prebentziozko arreta integratzailea oztopatu eta prozesu oso aurreratueta esku hartzea eragiten duelako.

Abusuak egiten direla pentsatzeko arrazoiaren artean, etorkin atzerritarren presentziak eragindako osasun-sistema publikoaren butxatze-pertzepzioa dago (itxaron-zerrendak, koordainketa, etab.). Hau da, osasuna eskasiaren eszenatoki gisa irudikatzen da eta, eszenatoki horretan, lehiatu egiten da eta

etorkinek egiten duten erabilera gehiegizkotzat jotzen da. Ezaugarri fenotipiko, elementu kultural edo hizkuntza-elementu bereizgarriek ikuspen handiagoa dutelako gertatzen da hori. Gainera, larrialdiko zerbitzuak erabiltzen direnean (egoera irregularrak, ezjakintasunak, lan prekarietateak eta abarrek behartuak), gehiago bistaratzen dira eta estereotipoa berrelikatzen du.

63. Immigrazioak osasunbidea pribatizatzen laguntzen al du?

Sarritan, migrazio-mugimenduak osasun-sistema bi norabidetan pribatizatzekeo prozesuarekin lotzen dira: etorkinen artean osasun-aseguru pribatuak gehiago kontratatzea eta etorkinen presentzia nabarmena duten lekuetan zerbitzu horien eskaera handitzea.

Etorkinen artean osasun-aseguru pribatu ugari dagoela berresten dute ikerketek, hainbat arrazoirengatik. Lehenik eta behin, jatorrizko herrialde batzuetan estaldura ahuleko osasun-eredu publikoak daudelako eta, horregatik, eremu pribatura jotzea ezinbestekoa delako. Halaber, atzerritartasun-prozedura askok osasun-aseguru pribatuak kontratatzea eskatzen dute. Beste batzuetan, sistema publikoak saihestu egiten dira diskriminazioaren beldurrez. Azkenik, errealitate horiek ezagututa, aseguru-etxe pribatuek kanpaina handiak egiten dituzte pertsona horiek beren zerbitzuak kontrata ditzaten.

Aseguru pribatuen eskaerari dagokionez, azterketen arabera, *osasun-zerbitzuen saturazioaren* iritzi hedatuak (itxaron-zerrendak, etab.) zerbitzu pribatuak areagotzen ditu: zenbat eta gehiago hazi itxaron-zerrendak, orduan eta aseguru pribatu gehiago kontratatzen dira. Hala, zenbait fenomeno demografiko, hala nola immigrazioa (etorkinak osasun-zerbitzuetara gutxiago joaten direla frogatuta egon arren, eta arreta-kalitateak okerrera egitearekin zuzeneko lotura duenik frogatu ez den arren), sarbide eskusibo gisa aseguru pribatuak kontratatzea eragiten duten arrisku gisa irudikatzen dira. Hori gutzia, zerbitzu

publikoaren kalitatearen atzerapenaren azken arrazoietan sakondu gabe.

Baina bada gutxitan aipatzen den beste azalpen-faktore bat ere, hain zuzen ere, osasun-sektore pribatuaren hedapena batez ere errenten hazkundearekin lotuta dagoela. Azken batean, errenten banaketa desorekatuak berak berrelikatuko lituzkeela irudikapen horie.

64. Patologia espezifikoak izaten al dituzte etorkinek?

Osasun-zentroetan gehiegi egoten direla usteak, koadro medikoen tipologia ohikoenekin batera, etorkinek osasun-premia espezifikoak dituztela eta bertako biztanleek baino arazo larriagoak dituztela pentsatzea ekarri du.

Ikerketen arabera, etorkinek osasun zerbitzuetara joateko izaten dituzten arazoak bertakoen berberak izaten dira gehienetan. Dena den, desberdintasunak egon daitezke.

Alde batetik, osasun-premiak kultura- eta/edo erlijio-kontuek zehazten dituzte, eta horiek modu desberdinean adierazten dira gorputzaren zainketari edo gaixotasunaren irudikapenari dagokienez. Adibidez, ezagunak dira odola sorginkeriarekin lotzen duten herritarrek analisiak egiteko jartzen dituzten oztupoak. Halaber, badira tratamenduak egiteko interferentziak ere, gaixotasuna erlijio-arau edo -aginduak betetzen ez dituzten jarduketan ondorio gisa ulertzen denean. Errealitate horiek erakusten dute nolako garrantzia duten kulturarteko gaitasunek osasun-langileen artean.

Bigarrenik, osasun-arloan izan dezakeen eragin handiagoaren arrazoi nagusia etorkinek dituzten irisgarritasun-baldintza sozioekonomiko desberdinak izan daitezke. Oztopo ohikoenen artean honako hauek daude, besteak beste: hizkuntza ez ezagutzea (bereziki, komunikazioa bermatu behar duen eremu espezializatu batean erabakigarria da), osasun-zerbitzuei buruzko informaziorik eza (antolaketa, larrialdiak, pazientearen eta langileen rola, etab.), etxebizitza-arazoak (pila-keta, bizigarritasun-arazoak,

etab.), baliabide urriak (diru-sarrera txikiak, laguntzarik eza, etab.) eta lanetik ateratzeko eta laneko bajak errespetatzeko zailtasunak (COVIDen pandemiaren ikusi ahal izan denez). Alde horretatik, pandemiak *neurritz kanpoko ordezkartza* erakutsi du etorkinen ospitalizazioetan eta heriotzetan; gainera, txertatze-tasa txikiagoak izan dituzte, desinformazioagatik, zalantzagatik edo osasun-sisteman sartzeko zailtasunengatik.

Azken batean, etorkinen patologia espezifikoak direnik esan ezin den arren, badira bizi diren gizarte-baldintzetan sortutako premia espezifikoak, kontuan hartu beharrekoak.

65. Etorkinek osasun mentaleko arazo gehiago al dituzte?

Migrazio-egoeraren eta buru-osasuneko arazoen artean beti egon izan da lotura. Egindako azterketei erreparatuz gero, immigrazioak ez luke berez buruko gaixotasunak izateko arriskua handituko, gaixotasun horiek, batez ere, migrazio-prozesuan izandako egokitze-esperientziekin lotuta egongo lirateke.

Etorkinek, jatorriko herrialdekoaren testuinguru desberdin batera egokitzen saiatzen direnean, jatorriko herrialdean nahiz harrera-gizartean ezaugarri soziodemografiko berberak dituzten pertsonak baino estres, depresio-tasa eta antsietate-arazo handiagoak izaten dituzte.

Dolua ohikoa da, galerei aurre egiteko formula gisa ulertuta. *Migrazio-dolua* eguneroko bizitza osatzen zuen (familia, lagunak, lekuak, tradizioak, etab.) eta jatorriko herrialdean geratu den guztia galtzearen ondorioz sortu da. Grabitatearen eta inpaktuaren arabera, dolu-mota desberdinak daude, baina Ulisesen sindromea izenekoa nabarmentzen da. Lehen bizi zuten errealtatea muturreko egoeretan uzten dutenean, migratzaileek jasaten duten ondorez emozional handia da (antsietatearekin, depresioarekin eta abarrekin lotuta dago). Koadro psikologiko horrek nabarmen okertzen du osasun mentala eta areagotu egiten da muturreko baldintzetan, hala nola errefuxiatuen edo errepresaliatuen kasuan.

Azkenik, eragin nagusietako batzuek lotura handia dute etorkinen baldintza sozioekonomikoekin. Bakardadeak, pertsona maiteengandik behartuta banandu beharrak, lanik ezak, eguneroko segurtasunik ezak eta ziurgabetasunak, baliabide materialen urritasunak, kanporatzeko beldurrak edo diskriminazioak, osasun mentala okertzen duten estres-elementu gisa jokatzeko dute.

66. Etorkinek gaixotasunak ekartzen al dituzte?

Historian zehar, migrazioetako joan-etorriak gaixotasunen inportazioarekin lotu izan dira. Ikuspegi hori neurri batean aldatu da COVID pandemiaren eta antzeko fenomenoaren ondorioz. Agerian geratu da aukera hori badagoela, hainbat arrazoiengatik (lana, turismoa, harremanak, etab.), pertsonak hara eta hona ibiltzen diren mundu batean.

Ikerketen arabera, pertsona migratzaileek inportatutako gaixotasunak (malaria, etab.) ez dira ohikoak, eta inportatutako gaixotasun bat gizarte hartzaileari transmititzeko arriskua oso txikia da ez dagoelako baldintza egokirik (klima, ingurumen-saneamendua, etab.).

Etorkinen seme-alaben kasuan, aldiz, maizago izaten dira gertaera horiek; izan ere, harrera-herrialdean luzaroan egon ondoren, berezko immunitatearen zati bat galtzen dute eta jatorriko herrialdeetara itzultzen dira aldi baterako. Gurasoen herrialdera joaten diren haurretan ere gertatzen da. Etorkinek inportatutako gaixotasunak hartzeko arriskua gutxitu egiten da xede-herrialdean dauden denboran, gaixotasun batzuen kasuan izan ezik.

Gaixotasun infekzioso kutsagarri batzuen kasuan, esaterako, tuberkulosiaren kasuan, ez daude immigrazio-egoerarekin lotuta, jatorriko herrialdean tuberkulosiak duen prebalentzia handiagoarekin eta etorkinek harrera-herrialdeetan bizi duten pilaketaren eta pobrezia-ondoriozko transmisio-erraztasunekin baizik. Etxebizitzaren baldintza osasungaitzek, nutrizio gabeziek, lan-baldintza kaskarrek edo osasun publikora iristeko mailetan dituzten mugek faktore erabakigarri moduan jokatzeko dute berriz ere.

67. Etorkina izatea pobre izatearen berdina al da?

Pobrezia joan-etorrien eragile nagusia da, eta munduan desberdintasun handiak daudela adierazten du. Era berean, badira osagai ekonomikorik ez duten beste arrazoi batzuk ere, hala nola etnia, erlijio, politika, sexu, identitate edo kulturagatiko jazarpenak, pertsonak beren herrialdeak uztera behartzen dituztenak.

Premia-egoerei erantzuten ez dieten etorrerak ere izaten diren arren (ikus soldata altuagoak edo lan-aukera hobekuntza, bizi-maila igotzea, hezkuntza-arloan hobekuntzak izatea, etab.), migratzaileen etorrerari dagokion errealitatean gehienetan egon ohi den ezaugarri bat da urratze-egoerak jasateko arriskuak inpaktu bikoiztuak eta hirukoiztuak izaten dituela bertako biztanleen errealitatearekin alderatuta. Arrakala handia dago pertsona nazionalen eta atzerritarren artean. Hori adierazten dute, besteak beste, langabezia-tasek, pobrezia-arriskuak, azpienpleguak, lanaren ezegonkortasunak eta behin-behinekotasunak edo hezkuntza-porrotak. Era berean, lan-merkatuan sartzeak ezaugarri hauek ere izan ohi ditu: enplegu irregularrak, lan-esplotazioa eta -diskriminazioa, gizarteak onartzen ez dituen lan-nitxoetan sartzea (etxeko zerbitzua, ostalaritza, etab.) edo lanpostu kualifikatuetara iristea eragozten duten ikasketak homologatzeko zailtasunak. Errealitate horiekin batera, gaitzespeneko eta arrazismo sozial eta instituzionaleko pasarteak gertatzen dira eta, askotan, osasun-, bizitegi- edo hezkuntza-sisteman sartzea oztopatzen dute. Horrez gain, zailtasunak daude gutxi garatutako sare informalen (familiakoak, lagunak, etab.) edo, aitzitik, mantentzeko laguntzak eskatzen dituztenen (ikus bidalketen kasua) babesa lortzeko.

Horren ondorioz, etorkinen ehuneko handi bat eskasia espiralen eraginpeko gizarte-desabantailako egoeretan geratzen da eta, aukera-berdintasuna izango dutela hitz eman arren, gabeziak hurrengo belaunaldietara igarotzen dira.

68. Etorkinek hartzen al dituzte gizarte-laguntza guztiak?

Gizarte-imaginarioan gehien zabaldutako ideietako bat da gizarte-laguntza gehien onuradun nagusiak etorkinak direla. Diskurtso horren arabera, erakundeek laguntza horiek handiak eta merezigabeak dira (batez ere egoera irregularrean dauden pertsonak badira).

Diru-sarrera nahikorik gabeko familien premiak estaltzea xede duten honako laguntza hauei egiten zaie kritika: berriki onartutako Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera (BGDS) bezalako laguntzako prestazioei edo autonomia-erkidegoen gizarteratzeko gutxieneko errentei. Esleipen-printzipioa ez da inola ere eskatzaileen jatorria edo nazionalitatea, premia-egoera baizik.

Alde horretatik, datu guztiek adierazten badute ere laguntza horiek ez dituztela etorkinak hartzaile nagusitzat hartzen, horrek ez luke inor harrিতa utzi behar, izan ere, premia-egoerek bikoiztutako edo hirukoiztutako inpaktuak dituzte kolektibo horretan. Hau da, laguntza hauen xede den esleipen soilik ekonomikoaren irizpideari jarraituz, etorkin gehiago egoteak immigrazio-aurrekariak dituzten etxeetan gainezka egiten duen prekarietateari erantzungo lioke. Aldiz, errenta horien onuradun gisa, espero baino gutxiago daudela esan daiteke, objektiboki behar handia duen gizarte-taldea direlako.

Hala, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera (BGDS) onartzeak eta antzeko ekimenek eragingo luketen dei-efektuaren beldurrez, adierazi behar da laguntza hori ez zaiela ematen egoera administratibo irregularrean dauden pertsonen, gutxienez eskaera aurkeztu aurreko urtean estatu espainiarrean jarraian eta etenik gabe bizitzea eskatzen zaielak.

69. Immigrazioa erronka bat al da gizarte-zerbitzuen sistemarentzat?

Osasun-sistemaren antzera, pentsamendu kolektiboan zabalduta dagoen ideia bat etorkinen harrerari lotutako gizarte-kostu handiegia da.

Lehenik eta behin, gizarte-zerbitzuetarako sarbidea izatea Ongizate Estatuaren zutabe bat da eta, ondorioz, sarbidea bermatu egin behar da, eskubide den aldetik, nazionalitatea kontuan izan gabe. Atzerritartasunari buruzko Legeko 14. artikuluan jasotzen den bezala, Gizarte Segurantzaren eta gizarte-zerbitzuen prestazioen katalogo osoa eskuratzeko, beharrezkoa da legezko bizitokia izatea. Gainerako pertsonentzat hori da laguntzak jasotzeko bete beharreko baldintza. Zuzenbide-osagai hori kontuan hartuta ere, migrazio-fenomenoaren itzulera ekonomikoa eta, zehazki, gizarte-zerbitzuen sistemaren jasangarritasuna hainbat azterlanetan jorratu da.

Kasu gehienetan adierazten da etorkinek Gizarte Segurantzari zergak eta kotizazioak ordainduz egiten dituzten ekarpenen eta jasotzen dituzten gizarte-laguntza eta pentsioen bidez zerbitzu publikoetan egiten duten gastuaren arteko saldoak emaitza positiboa duela eta horrek, gainera, Barne Produktu Gordinean (BPGd) presentzia nabarmena duela. Zabalduetako iritzia bestelakoa den arren, etorkinek ematen dutena baino gutxiago jasotzen dute. Gainera, oro har, bertakoek baino onura sozial gutxiago dituztela ere esan daiteke. Errealitate hori lurralde guztietara zabal daiteke.

Alde horretatik, pertsona lekualdatuen edo errefuxiatuen harrerak antzeko kezka sortu du. Kasu honetan, arrazoi humanitarioengatik egin beharreko harrera da eta, batez ere, xede horretara bideratutako Europar Batasuneko funtsek estaltzen dute.

Azkenik, sistemaren ikuspegitik erronka bat dagoela adierazi beharko litzateke, sarbide hori ez dadin gauzatu baliabide urrien bidezko lehiaren logikatik, gizarte-gatazkakortasuna areagotzeko moduan.

70. Ba al dago etorkinentzako laguntza eskusiborik?

Aurrez pentsatutako ideien aurrean, gizarte-laguntza ohikoenen eskakizunek (gutxieneko errentak, etab.), ez dute ezartzen atzerritarra

izatea edo jatorria abantaila gisa edo lortzeko aukera handiago gisa. Laguntza horiek pertsona edo etxe eskatzaileen premien arabera bakarrik ematen dira.

Nahasmena joan-etorriak egin dituzten pertsonen lotutako laguntza gutxi egotearen ondoriozkoa da. Adibidez, gatazka, jazarpen edo giza eskubideen urraketen ondorioz beren herrialdeetatik ihes egin eta legez edo legez kanpo iristen diren errefuxiatuak babestera behartzen du Genevako Nazioarteko Konbentzioak. Halaber, gizakien salerosketaren biktima izan diren atzerritarrek laguntza ekonomikoak, bizitegi-laguntzak eta aparteko lan-baimenak jaso ditzakete.

Espainiako nazionalitatea duten itzultitako pertsonen, baldin eta premia larria frogatzen badute, heldu eta lehen bederatzi hilabeteetan, haiek mantentzeko laguntzak ere badituzte, baldin eta itzulera baino gutxienez bost urte lehenago jarraian atzerrian bizi izan direla frogatzen badute.

Baina ez dago laguntzarik ez duten adingabe atzerritarrentzako berariazko prestaziorik. Tutoretza administratiboak irauten duen bitartean eta, hezkuntza-helburuekin, dirukopuru txiki bat ematen zaie Espainiako nahiz atzerriko nazionalitatea duten pertsonen. Halaber, 18 urte baino gehiago dituzten eta tutoretzapean egon direnentzako (Espainiako eta atzerriko nazionalitatea dutenak) laguntzak ere badaude. Beraz, laguntza horiek ez dira migratzaile izateagatik ematen direnak.

Azkenik, laguntza horiek lortzea erraza dela uste bada ere, badira beste oztopo garrantzitsu batzuk. Adibidez, egoera irregularrean dauden etorkinentzako laguntzak mugatuak izan daitezke, dokumentaziorik ez dutenez, ezin dutelako bankuko konturik ireki laguntza horiek jasotzeko.

71. Etorkinek lehenetsuna al dute etxebizitza sozialak eskuratzeko?

Bertako biztanleen ikuspegitik, eta bizitegi-arloan dauden arazo komunak kontuan

hartuta, haserre handia dago etorkinei etxebizitza eskuratzeko ematen zaizkien abantailengatik.

Hala ere, etorkinek etxebizitza lortzea oso zaila izaten da heldutako unean. Erosketa-prezio handiei edo alokairu-eskaintza eskasari oztopo espezifikoak gehitu behar zaizkie eta, maiz, etxetik kanpo geratzeko arriskuan jartzen dituzte. Hala, kaleratze-tasa handietan dute beren adierazpiderik okerrenetako bat.

Oztopo horien artean daude, besteak beste, etxebizitza-premiak larriagotzen dituzten iriste-baldintzak (hasierako ohiko estatusun ekonomikoa kontuan hartuta) eta etorkinak ageriko ezaugarri edo adierazpenen bidez identifikatuta eta baldintza gehiago edo eremu periferiko edo degradatuetarako sarbide banandua ezarritik, diskriminaziozko tratua normalizatzen duen higiezinaren merkatua.

Etxebizitza eskuratu ondoren, bizitoki-egoerek gaitz ekonomiko hirukoitza izaten dute bertako biztanleen errealitateekin alderatuta eta bizigarritasun-baldintza okerragoak izaten dituzte (pilaketa, hezetasuna, oinarritzko hornidurarik eza, etab.).

Etxebizitza sozialak eskuratzeko erraztasunari dagokionez, sustapen publikoek artatu behar lituzketen etorkinen premiazko egoerak frogatuta egon arren, oztopoak ugaltu (eta larriagotu) egiten dira, adibidez, erroldatze jarraituak eskatzea, alde aurreko diru-sarrerak frogatzea edo antzinasunari premiari baino lehentasun handiagoa ematen dioten baremoak.

Laburbilduz, bizitegi-baliabide publikoak urriak direnez, lehia-objektu bihurtzen dira eta, bizitegi-prekarietatearen ebidentziak egon arren, etorkinek etxebizitza lortzeko lehentasunari buruzko ideia oinarririk gabeak zabaltzen dira.

Jiménez-Martín, S., & Jorgensen, N. (2009). Inmigración y demanda de seguros sanitarios. *Gaceta Sanitaria*, 23, 19-24. Eskuragarri hemen: <https://labur.eus/4sHfh>

Fuertes, C., & Martín Laso, M. A. (2006). El inmigrante en la consulta de atención primaria. *Anales del Sistema Sanitario de Navarra*, 29 (Supl. 1), 9-25. Eskuragarri hemen: <https://labur.eus/wQxOX>

Roca, C., & Balanzó, X. de. (2006). Enfermedades importadas en inmigrantes: mito y realidad. *Anales del Sistema Sanitario de Navarra*, 29 (Supl. 1), 139-144. Eskuragarri hemen: <https://labur.eus/EPcWd>

Peris-Cancio, L. F. (2021). Reflexiones sobre la accesibilidad de la población extranjera a los programas nacionales de rentas mínimas: una lectura comparada. *Revista Española de Sociología*, 30 (2), a50. Eskuragarri hemen: <https://labur.eus/cL8JT>

Integrazioa eta kultura-aniztasuna

Sandra Gil Araujo

CONICETeko ikertzailea.(Ikerketa Zientifiko eta Teknikoen Kontseilu Nazionala, Argentina)

72. Zer pentsatzen zen etorkinen presentziari buruz gerraosteko testuinguruan migrazioa hartzen zuten Europako herrialdeetan?

Hirurogeita hamarrekoko hamarkadaren erdialdera arte, ez zen uste etorkinak nazio-ordenarako arazo zirenik, langile atzerritarrek beren lan-kontratuak amaitu arte bakarrik geldituko zirela uste zelako.

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, elkarren artean alde handiak izan baziren ere, Europako erdialdeko eta iparraldeko estatuek hazkunde eta hedapen ekonomikoko aldi bat bizi izan zuten eta, jaiotza-tasaren beherakadarekin eta tokiko biztanleen hezkuntza-maila handiarekin batera, industria-sektorerako kualifikazio txikiko eskulanaren falta eragin zuen. Eskari horri erantzuteko, gobernuek langileak kontratatze politikak sustatu zituzten atzerriko herrialdeetan. Zenbait kasutan kolonietatik eta kolonia ohietatik hasita, edo Mediterraneoaren iparraldeko herrialdeekin (Espainia, Italia, Portugal, Grezia eta Turkia) eta Ekialdeko Europakoekin egindako akordioen bidez, gero Magrebeko herrialdeetara zabalduko zirenak (Maroko, Aljeria eta Tunisia). Herrialde guztietan, atzerritarren enplegua behin-behineko konponbidetzat hartu zen, aldi baterako langile-gabeziari erantzuteko. Ageriko desberdintasun fenotipiko eta kulturalak izan arren, immigrazioa ez zen hartu arazo politiko garrantzitsuen iturri gisa. Zailtasunak desberdintasunaren eta klase-gatazkaren ikuspegi orokorraren arabera interpretatzen ziren, eta etorkinak langile-klaseko kide berritzaletan hartzen ziren. Politika ekonomikoak eta ongizate-estatuari lotutako beste gai batzuek gobernatzeko zuten immigrazio-politika. Kultura-desberdintasuna ez zen gai horiei buruz pentsatu, eztabaidatu eta esku

hartzeko esparrua. Oro har, immigrazioaren arazoak sozioekonomiari lotuta identifikatzen ziren: pobrezia eta desabantaila-egoerei lotuta, edo hiri-pilaketaren edo etxebizitzaren prekarietatearen sintoma gisa. Langile migratzaileak gizarte-sisteman sartu ziren ongizatearen eta eskubideen inguruko garai hartako giro hedatzaileari esker, baina baita ongizate-estatuaren eskemak unibertsaltasun-printzipioa higituko zuen salbuespenik onartzen ez zuelako ere.

